

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA
DRAMATIZAZIOAREN BIDEZ MINORRAK
IRAKASLEGAIEN PRESTAKUNTZAN DUEN
INPAKTUA
GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Goyeneche Lizundia, Paule

ZUZENDARIA: Tresserras Angulo, Alaitz.

2019ko ekainaren 11an

LABURPENA

Dramatizazioari buruz hitz egiten denean heziketa hizpide izan beharko litzateke ere bai, dramatizazioak pertsonen garapen integralean eragin handia baitu. Gaur egun, dramatizazioak hezkuntzan gero eta oihartzun gehiago izan arren, irakasleen formakuntza eza dela eta, oraindik baliabide pedagogiko gisa erabiltzeko bide luzea du. Gradu Amaierako Lan honek, Vitoria-Gasteizeko Haur Hezkuntzako Graduko *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasleen esperientziaren ikerketa kualitatiboaren bitartez, minor honek irakaslegaien prestakuntzan duen eragina aztertzen du. Ikerketa, ikasleen artean gauzatutako bi eztabaida taldeetan oinarritzen da, irakaslegaien prestakuntza prozesuari buruzko iritziak jasoz eta hasierako eta amaierako eztabaiden arteko aldaeren inguruan hausnartuz. Hori guztiari, erreferentziazko autore ezberdinek gaiaren inguruan egiten dituzten ekarpenak gehitzen zaizkio. Ondorioetan, dramatizazioak balioetan oinarritutako heziketa bat bermatzeko duen garrantzia identifikatu eta etorkizunari begira hobekuntza proposamen posibleak plazaratu dira.

Hitz gakoak: Haur hezkuntza, dramatizazioa, irakaslegaien-prestakuntza, heziketa integrala, eztabaida taldeak.

RESUMEN

Cuando se habla acerca de la dramatización, se debería de hablar también de la educación, teniendo ésta gran influencia en el desarrollo integral de las personas. Hoy en día, pese a que la dramatización tiene más presencia en la educación, a causa de la falta de formación de los profesores, le queda un camino largo que recorrer para que se utilice como recurso pedagógico. Este Trabajo del Fin de Grado, por medio de la investigación cualitativa de la experiencia de los estudiantes del minor de *Expresión y comunicación a través de la dramatización* del Grado de Educación Infantil de Vitoria-Gasteiz, nos lleva a examinar la influencia que este minor tiene en la preparación de los futuros profesores. La investigación, se basa en dos grupos de debates realizados entre los estudiantes, recogiendo las opiniones sobre el proceso de formación de los alumnos y reflexionando acerca de las diferencias entre un debate y el otro. A todo eso, se le añaden las aportaciones que diferentes autores de referencia hacen acerca del tema. En las conclusiones, se ha identificado la importancia de la dramatización para garantizar una educación basada en los valores y de cara al futuro se analizan las propuestas de mejora posibles.

Palabras clave: Educación infantil, dramatización, formación de los futuros profesores, educación integral, grupos de debate.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	MARKO TEORIKOA	4
2.1.	<i>Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez</i> minorra, umeen hizkuntza anitzetan trebatzeko aukera	5
2.1.1.	Adierazpen eta Komunikazio Trebetasuna	7
2.1.2.	Gorputz Adierazpena.....	7
2.1.3.	Hizkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa.....	8
2.1.4.	Musika hizkuntza	8
2.1.5.	Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak.....	9
2.2.	<i>Adierazpena eta Komunikazioa dramatizazioaren bidez</i> minorraren ekarpen pedagogikoak. Zergatik eta zertarako dramatizatu irakaslegaien prestakuntza?	10
2.2.1.	Haur Hezkuntza eta Curriculumaren oinarri pedagogikoak bizipenetik ikasteko	10
2.2.2.	Jolas sinbolikotik dramatizazioaren bitartez trebatzeko.....	11
2.2.3.	Hazkuntza sozioafektiborako	12
3.	HELBURUAK.....	13
4.	METODOA	14
4.1.	Azterlanaren testuingurua eta parte-hartzaileak.....	14
4.2.	Erabilitako tresnak	15
4.3.	Informazioa aztertzeko prozedura.....	16
5.	EMAITZAK.....	17
5.1.	Irakaslegaien euren prestakuntza identifikatutako gabeziak.....	18
5.1.1.	Egoera-alderdi pedagogiko zehatzen prestakuntza falta.....	18
5.1.2.	Praktikatik teoria ikastearen beharra.....	19
5.2.	Irakaslegaien espektatibak <i>Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez</i> minorrarekiko	20
5.3.	Minorraren hobetzeko alderdiak.....	21
5.3.1.	Lan teorikoan.....	21
5.3.2.	Sorkuntza prozesuan.....	22
5.4.	Minorraren ekarpenak irakaslegaien prestakuntzari	23
5.4.1.	Dramatizazioa ekarpen pedagogiko bezala	24
5.4.2.	Egiten ikastearen aberastasuna	25
5.4.3.	Umeen hizkuntza anitzetatik trebatzeko aukera.....	26
5.4.4.	Euren hazkuntza sozioafektiboa bermatzea	26

5.4.5.	Etorkizunerako irakasle gisa egin dizkien ekarpenak.....	33
6.	ONDORIOAK.....	35
7.	HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	37
8.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	39
9.	ERANSKINAK.....	42
9.1.	Ikasgaiek dramatizazioari egiten dizkioten ekarpenak.....	42
9.2.	Lehenengo eztabaidako galdera eragileak.....	42
9.3.	Bigarren eztabaidako galdera eragileak	43

1. SARRERA

Espainia mailan, arteak eta jolas dramatikoak hezkuntzan erabilpen eskasa eta gutxi arautua izateak (Tresserras, 2017), unibertsitatean ematen den formakuntza ezarekin zerikusia du, irakaslegaiak ez baitute gai horiekiko oinarrizko prestakuntzarik eskuratzen (Navarro, 2003). Egoera honek eskoletan eragin handia du eta hori aldatzeko beharra dago, eskola, umeek euren abenturak bizi dituzten eszenatokiaren parte baita (Tresserras, 2017).

Vieitesek (2012) dramatizazioa ibilbide akademiko guztian zehar (Haur Hezkuntzatik graduondoetara) agertzearen garrantzia azpimarratzen du, alde batetik, garapen pertsonal, sozial, espresibo eta komunikatiboan laguntzeko eta, bestetik, garapen profesional eta artistikoa sustatzeko. Dramatizazioa banakoaren heziketan indartzaile handi bat da, emozioak, sentimenduak eta ezagutzak kontuan hartzen baititu (Nuñez, 2003).

Dramatizazioak hezkuntza munduan gero eta presentzia gehiago baduen ere, musika eta plastika eremuarekin alderatuz, Haur Hezkuntzako Curriculumean ez dago hain aintzatetsia (Nuñez, 2003), ez baitzaio behar bezalako garrantzia ematen. Errealitate horretatik abiatuta, irakaslegaiak eskaintzen zaien oinarrizko formakuntza zein den aztertzea interesgarria iruditu zitzaidan, ia hauei etorkizun batean ikasleekin dramatizazioa praktikan jartzeko behar adina baliabide eskuratzen zaizkien ikusi ahal izateko.

Gasteizko Haur Hezkuntzako Gradu eta, zehazki, *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasle izan naizenez, azterlan honetan biziki parte hartu dut. Neure esperientziatik abiatzeak prozesuan inplikazio gehiago izatera eta arestian aipatutako gabeziaren garrantziaz ohartzera eraman nau. Aztertzailea konfiantzazko pertsona bat izatean, eztabaidan parte hartu dutenek ere, askatasun gehiagorekin jokatzeko aukera izan dute. Ikasleok ibilbide bera egin izana, aberasgarria izan da irakaslegaiak jasotako prestakuntzaren inguruan duten ikuspuntua hurbilagotik bizitzeko.

Hala, hezkuntzan dramatizatze dagoen beharraren inguruan sakondu da lanaren atal teorikoan, eta zehazki, dramatizazio minorrak irakaslegaien prestakuntzan duen eraginaz. Lanaren bigarren zatian, Gasteizko *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasleek izandako esperientzia jasotzen, aztertzen eta kontatzen da. Ikerketa kualitatiboa abiapuntu, eztabaiden bitartez, gaur egun ikasle hauek jaso duten prestakuntzaz hitz egiten da. Emaitzen atalean, lortutako informazioa aurkezten eta oinarri teorikoak ahaztu gabe interpretatzen dira. Azkenik, egoera honen inguruko ondorioak plazaratzen dira, etorkizunerako argibide posible batzuk ekarriz.

2. MARKO TEORIKOA

Gaur egungo hezkuntza eredua lehiakortasunean eta indibidualismoan oinarritutako eredua denez eta gizabidezko eta balioetan oinarritutako hezkuntza alde batera uzten duenez, maila sozial, emozional eta gorputzaren ezagutzari garrantzia emateko beharra dago. Eskola, ikasleen gaitasun

sozialak eta baita haien trebetasun afektibo-emozionalak eta espresiboak indartzeko funtsezkoa da (Navarro, 2006).

Dramatizazioa, indibidualismoak sortarazten dituen arazo sozialak ekiditeko baliabide pedagogiko paregabea da (Tapia, 2015/16) eta "arte sozial"-tzat har daiteke, taldean jarduteak ikasleek heziketa emozional on bat izatea ahalbidetzen baitu. Adierazpen dramatikoak hain da esperimentala eta motibagarria non ikasleek berezko konfiantza eskuratzen duten, ekintza dramatikoak hobeto ulertaraziz (Navarro, 2006).

"El sistema educativo contemporáneo necesita profesores y profesoras que, entre otras características, sean, personas mediadoras interculturales, animadoras de una comunidad educativa y conductoras culturales. Que sean capaces de crear situaciones de aprendizaje significativo, gestionar la heterogeneidad, reflexionar críticamente sobre su práctica y sobre el lugar que le corresponde a la educación en la sociedad actual" (Tresserras, 2017, 69-70 orr.).

Irakaslearen begirada umeengan jarrita egotea beharrezkoa da, umeen 100 hizkuntzak (Malaguzzi, 2005) kontuan hartuz, haiek ez baitira soilik ikusten dutenarekin geratzen, beti haratago doaz. Ume bakoitza bakarra eta ezberdina da, banako bakoitza besteekin harremantzeko modu desberdinak eta gaitasun anitzak baititu. Ideia hori da, hain zuzen ere, Malaguzzik aldarrikatu zuena, ume bakoitzak ekintza errealetatik ikastea eta hezitzailea, umeak parte hartzeko eta erabakitzeko dituen era ezberdinak behatzea eta haietaz jabetzea (Martinez eta Ramos, 2015).

Umeentzako kalitatezko hezkuntza bat eskaintzea, gizartearen funtsezko lehentasun nagusienetako bat izan behar da. Umeen adierazpen gaitasunak mugagabeak diren heinean, Haur Hezkuntzako pedagogia on batek ume bakoitzaren adierazpena eta hizkuntza aberastasuna kontuan izan behar du (Malaguzzi, 2005). Irakasleek argi izan behar dute heztearen funtsa zein den, Haur Hezkuntzaren oinarria umea dela gogoratzuz, eta beraz, bere errealitate, ikasteko era, erritmoa eta denbora errespetatu behar direla (L'Ecuyer, 2015).


2.1. Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorra, umeen hizkuntza anitzetan trebatzeko aukera

Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorra Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultateko 4. mailan gauzatzen da eta modulu honi diziplinarteko lan bat dagokio¹. Horren helburua, haurrentzat zuzendutako dramatizazio-proiektu bat diseinatzea eta aurkeztea da, Adierazpen eta Komunikazio Trebetasuna, Gorputz Adierazpena, Hizkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa, Dramatizazio adierazpenerako Informazio eta Komunikazio Teknologia eta Musika Hizkuntza diren ikasgaietako edukiak batuz. Bost hizkuntza horiek, adierazpen eta komunikazio hizkuntza desberdinen arteko elkarrekintza jorratuz, baliabide pedagogiko bezala erabiltzen dira. Lan honen helburua esperimendatzea, jolastea, etab., da, bidean sortzen diren zalantzak, arazo edo ikuspuntu berriak denen artean ebatziz eta erabakiak hartuz. Prozesua moduluaren protagonista izango da.

¹ [6. moduluko diziplinarteko lanaren gida](#)

1. Irudia

Ikaskuntza-sorkuntza prozesuaren irudikapena



Prozesuan, ikasleek emozioetatik eta esperientziatik ikastearen garrantziaz ohartzen dira eta minorreko helburu pedagogikoetako bat jolas dramatikoan oinarritutako proposamen didaktikoak indartzea da. Helburu hori lortzeko, ikasleek haien praktikak analizatzen dituzte, hobekuntzak antzematen, irakaslearen begiradaren norabidea hobetzeko asmotan (Aristizabal et al., 2014 in Treserras, 2017).

Hizpide den dramatizazioaren barnean hainbat baliabide aurki ditzakegu, hala nola, gorputz adierazpena, musika, plastika, literatura eta erlaxazioa (Solís, 2018). Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorraren ikasgaiak horrelako baliabideak hartzen dituzte bere baitan, eta ikasgai horiek eta euren funtzioa azaltzen da minor honen parte garrantzitsua direlako. Jarraian, minor horren ekarpen pedagogikoak aipatzen dira, irakasleen prestakuntzan dramatizatzeak duen garrantziaren zergatiak zehaztuz.

2.1.1. Adierazpen eta Komunikazio Trebetasuna

Jarduera dramatikoa, adierazpen eta komunikazio kodeen globalizatzeko prozesu korapilatsu bat da, Teruelen (2016) aburuz, non norbere burua eta ingurune sozial eta kulturala ulertzeko bidea ematen den. Jarduera dramatikoa adierazpenari oso lotuta dagoenez, honen funtzio nagusia, haurrak bere buruan konfiantza gehiago izatea eta komunikatzeko ahalmena garatzea da. Alabaina, alfabetatze estetikoaren erabilera ere, bereziki, emozioak, kultura, historia eta pedagogia, kritikotasuna, sormena eta harremanak garatuz.

Ekintza dramatikoaren bitartez, adierazpen eta komunikazio gaitasunak aberasten dira, etorkizunean irakasle gisa lagungarri gertatuko diren komunikazio-modu eta adierazpide ezberdinak landuz (Motos, 1992 eta Moreno, 1999 in Nuñez eta Navarro, 2007). *Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna* minorraren ikasgaiaren, ikasleak era dramatikoan adierazten eta komunikatzen trebatzen hasten dira eta ikasleak irakasle direnerako, ikasitakoa, hizkuntzaren ikaskuntzarako baliabide didaktiko legez erabiliko dute, lexikoan eta hizkuntzaren erabileran emaitza paregabeak lortuz. Irakaslegaien prestakuntzan, desinhibitzea eta lasai egotea funtsezkoa da, eta hori lortzeko, emozionalak, arrazionalak eta gorputzezkoak diren jarduerak ezinbestekoak dira (Tresserras, 2017).

Adierazpen eta Komunikazio Trebetasuna ikasgaiko helburuetako bat gustuko eta ezagun diren testuen dramatizazio txikiak egitea da, entzuteko eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko. Dramatizatzeko gaitasun hori lortzeko, literatur eta beste testu batzuk erreferente bezala hartu behar dira eta haurrentzat bideratutako dramatizazioak egin, batez ere, antzerki gidoia, ahozkotasunaren eta ahoskeraren lanketaren bitartez eta ipuin dramatizazioa eta teknika eszenikoak ezagutzeko eta praktikatzeko.

Malaguzzik bere "Dudarik gabe, ehunak hor daude"² olerkian, helduak umeen adierazpen eta komunikazio era guztiak ezagutzera eta aintzat hartzera bultzatzen ditu, kulturak formakuntzan adierazpen hizkuntzak balioetsi eta ahaztu baititu (Martinez eta Ramos, 2015). Horren isla da honek dioen esaldia: "el niño tiene cien lenguas (y además cien cien cien) pero le roban noventa y nueve. La escuela y la cultura le separan la cabeza del cuerpo" (Malaguzzi, 2005).

Hizkuntza anitzek dakartzan onurak ikusita, eskoletan hizkuntza berriei atea zabaltzea oinarrizkoa bilakatu dela agerian dago. Hizkuntza aberastasun horrek, haurrei etorkizun batean trebeak izatera, komunikatzeko ahalmena garatzera, zaintzeko abilezia lantzea eta bereizketak egitera lagunduko die. Alderdi hau aurrera eraman ahal izateko, Haur Hezkuntzan hainbat dimentsio gehitu behar dira errekurso pedagogiko bezala (ikus. 9.1. eranskina), esaterako, ondoren azalduko diren gorputz, estetika, ikus-entzun eta teknologia dimentsioak (Tresserras, 2017; Rodríguez, 2012).

2.1.2. Gorputz Adierazpena

Gorputz adierazpenaren bitartez, autoestimua eta konfiantza idartzeaz gain (Vizcarra et al, 2010), 237/2015 Dekretuan berariazko oinarrizko motrizitateko konpetentziaren barruan islatzen den moduan,

² Lan honetan ageri diren itzulpenak autoreak gaztelertatik euskarara egindakoak dira.

"gorputzaren bitartez ideien eta emozioen berri eman eta besteen gorputz-adierazpenak modu egokian interpretatzen eta balioesten da".

Lacárcelek (2011, in González, 2015) dioen legez, gorputz hizkuntza erabiltzen den lehen espresio bidea da, eta ahozko komunikazioa gehien erabiltzen den arren, gorputz hizkuntzak berezko garrantzia izaten jarraitzen du, askotan, informazio gehiago proportzionatuz. Gorputza ez da soilik gizakiak bizitzeko beharrezkoa duen tresna, baizik eta baliabide bat, zein ondo erabiltzen bada, ideia berriak sortzeko balio duen, ideia horiek konektatzeko, kritikatzeko, arrazoitzeko eta gogoratzeko (Malaguzzi, 2005).

Gorputz Adierazpena ikasgaiak helburu zehatz batzuk ditu: gorputz-adierazpeneko eta hitzezko edo ez-hitzezko komunikazioaren funtsak ezagutu eta praktikan jarri; gorputza eta adierazpen era ezberdinak, esperientzien bitartez ezagutzea; dramatizazio teknika ezberdinak ezagutzea; bereziki, mimo eta dantzaren bitartez sormena eta komunikatzeko eta adierazteko era ezberdinak garatzea, beste hizkuntzak kontuan izanik (musikala, plastikoa, ikusizkoa, hitzezkoa eta ahozkoa); eta azkenik, gorputzaren adierazpen aukerak ezagutzea, abesti dramatizatueta aplikatu ahal izateko.

Helburu horiek aintzat hartuta, gorputz adierazpena ikasleengan dramatizazioa sustatzeko baliabide aproposa izan daitekeela azpimarratu behar da, "gorputzaren mugimendu-aukerak aztertzen dira, egoerak, emozioak, ideiak, bizipenak, pentsamenduak, eta abar, deskribatzeko eta, horretarako, gorputza komunikatzeko eta adierazteko tresna bihurtuko da" (Vizcarra, 2008, 19.orr.). Ikasleek emozioak identifikatzen ikasiz, gerora, hauek azaleratzeko eta espresatzeko gai izango dira.

2.1.3. Hizkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa

Adierazpen-baliabideekin jarraituz, hizkuntza plastikoa eta ikusizkoaren xede nagusia errealitatea ulertzea eta adieraztea da, ondorengoak direlarik ikasgaiaren helburu zehatzak: dramatizazio eta ipuinetako ilustrazio eta narrazioak laguntzeko balio duten baliabide, teknika eta ikusizko estrategia ezberdinak ezagutzea; atrezzo edo eszenografiarako material ezberdinak asmatu ahal izateko elementu plastiko eta ikusizko anitzak lantzea; dramatizazioan aplikatzeko aukera plastikoak ezagutzea; eta azkenik, irudiarekin eta eszenografiarekin jolastuz, narrazioak edota ipuinak laguntzeko teknika ezberdinak menperatzea.

Hizkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa ikasgaiak, ez du soilik trebetasunak eskuratzea suposatzen, heziketa artistikoan gauzatzen diren lanetan, hautemate eta auto-adierazpen gaitasunak nabariak dira eta kutsu pertsonal eta subjektibo handia ikus daiteke hauetan (Nuñez eta Navarro, 2007). Heziketa artistikoari esker, errendimendu akademikoa hobera doa, garapen pertsonala eta autoestimua hobekuntzan ere laguntzen baitu (Moskowitz, 2003 in Tresserras, 2017).

2.1.4. Musika hizkuntza

Hezkuntza artistikoak musika hizkuntza hartzen du bere baitan eta honek antzinatekin lotura handia izan du, musika hainbat helbururekin erabiltzen baitzen: ekintzari indarra emateko, eszena

ezberdinak bateratzeko edota soilik entretenitzeko. Ikasgai honek bi helburu nagusi ditu: bata, narrazioak, ilustrazioak eta ipuin musikalak gauzatu ahal izateko musika genero eta estilo ezberdinak ezagutzea; eta bestea, mugimenduaren bitartez, koreografia eta dantza ezberdinak praktikan jarri ahal izateko, elementu musikal anitzak lantzea.

Musikak, adierazpen artistiko gisa, gainontzeko arteekin konparatuz ezaugarri bereizgarri bat dauka: entzumenaren gaitasunaren erabilera. Gaitasun hau gizakiaren inguruarekin zein pertsonekin harremanetan jartzeko eta interakzioan egoteko ezinbestekoa da eta arreta mantentzen eta irudimena garatzen laguntzen du (Cabezas, 2009). Entzumena, adierazpena eta sormena adierazteko musikaren erabilera funtsezkoa bilakatzen da eta baita hurrek garapen osoa lortzeko, musikari esker, haurra bere barne mundua adierazteko gai baita (UEUren, n/d).

Fernandezek (2009), musikak izaera harmonikoa eratzen laguntzen duela gehitzen du, gaitasun guztiak estimulatuz: memoria, entzumen bereizketa, arreta, sinkronizazioa, parte hartzea eta talde zentzua. Posible den heinean, musika lotsa kentzeko eta jarrera eta mugimenduen jarioasunean laguntzeko erabili behar da (Borda, 2015).

2.1.5. Informazio eta Komunikaziorako Teknologia

Informazio eta Komunikaziorako Teknologien (hemendik aurrera IKT) zabalkuntza alor guztietan abiadura handian ematen ari den prozesua da (Perera eta Suárez, 2009; Graells, 2000). Gaur egun, edozein lekutan aurkitzen ditugu baliabide teknologikoak, gero eta teknologia gehiago dago eta gero eta onartuagoak. Gertatzen ari diren aldaketa hauek hezkuntza arloan izugarritzko eragina dute, hezkuntzaren erronketatik funtsezkoenatariko bat ikasleak aldaketa horietarako prestatzea izan behar da (López de Arana, 2009).

IKT ikasgaiak ondorengo lau gaitasunak lantzea proposatzen du: haurren komunikazioa eta adierazpena hobetzeko teknikak eta oinarriak ezagutzea; ikus-entzunezko hizkuntzak eta beren hezkuntza-inplikazioak aztertzea; komunikazioari eta adierazpenari zentzua emateko, IKTekin lankidetzan aritzea eta irakasgai ezberdinak erlazionatzea; eta azkenik, historia dramatikoak hobetzen laguntzen duten proiektuak IKTeetan prestatzea eta aurrera eramatea.

Ikuspuntu pedagogiko horretatik garrantzitsuena IKTekin sortzen den harremana da (Tresserras, 2017); hain zuzen ere, IKTekiko irakasleek zein ikasleek izan ditzaketen jarrera ezkorrek ekiditu behar dira eta hauek sorrarazitako oztopoei, formazio faltari, segurtasun arazoei, eta kultur-trabei aurre egin behar zaie (Graells, 2000). IKTak iturri erraldoia izateaz gain, hezkuntzan funtzio anitzak ditu, hala nola, gizarteari egokitzea, alfabetatze digitala baimentzea, eten digitala saihestea, inklusio digitala bermatzea eta hezkuntza eredua berriztatzea, hauen erabilera guztiz onuragarria bilakatuz (López de Arana, 2009).

Nahi eta nahi ez, ikus-entzunezkoak emozioekin eta inkontzientearekin zuzenean konektatzen dute (Ferrés, Are y Calero, 2005 in Tresserras, 2017), gizakiak txikitatik irudiekin daukagun harremanaz baliatuz (Tisseron, 2006) eta berau elikatuz. IKTak ondo erabilia hezkuntza eta hazkuntza

prozesuetan lagundu dezakete esperimentaziorako agertoki desberdin eta berriak asmatuz edo sortuz eta batzuetan agertzen den estresa eta frustrazioa gailendu daitezke (Tresserras, 2017; Claro, 2010).

Gainera, “los niños son extremadamente sensibles a estímulos como la música, el color, los personajes animados o las imágenes” (Martínez, Monserrat, y Tur, 2012, 159 orr. in Tresserras, 2017) eta aipatutako baliabideak (ahozko komunikazioa, gorputza, hizkuntza plastikoa eta ikusizkoa, musika eta teknologia dimentsioak) oso eraginkorrak dira, estimulu horiek guztiak garatzeko, dramatizazioari oso ekarpen esanguratsuak eginez.

2.2. Adierazpena eta Komunikazioa dramatizazioaren bidez minorraren ekarpen pedagogikoak. Zergatik eta zertarako dramatizatu irakaslegaien prestakuntzan?

Dramatizazioak balioetan oinarritutako hezkuntza bermatzen du eta gaur egun, hori da eskolak gehien behar duena, dramatizazioa horretarako eta heziketa emozionalerako oso tresna eraginkorra baita (Nuñez eta Navaroren, 2007).

Dramatizazioak, beste batzuen artean, hamar aspektu baliotsu ditu, hau praktikan jartzerakoan argi ikus daitezkeenak: gorputza bizi, sensopertzepzioa, kontzentrazioa eta arreta, komunikazioa, zorrotasuna eta malgutasunaren arteko oreka (arauak), pentsamendu praktiko eta autonomia, emozioen garapen eta kontrola, talde-grina eta elkarrekintza soziala, eduki gizatiarrak (planteatutako gaiak) eta azkenik, aho- eta gorputz- adierazpena (Motos eta Navarro, n/d).

Aipatutako aspektuez gain, *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ekarpen pedagogikoak aipatuko dira, irakaslegaien prestakuntzan zergatik eta zertarako balio duen zehaztuz: ikasleen bizipenetatik Haur Hezkuntza eta Curriculumaren oinarri pedagogikoak ikasteko, jolas sinbolikoaren bitartez dramatizatzen heldzeko eta ikasleen hazkuntza sozioafektiborako.

2.2.1. Haur Hezkuntza eta Curriculumaren oinarri pedagogikoak bizipenetik ikasteko

Dramatizazioaren presentzia Haur Hezkuntzako Curriculumean ezinbestekoa da eta zertan datzan jakiteko, zer dimentsio lantzen dituen eta esperientzia emozionaletik bizitako aspektu teorikoak maila intelektual eta kognitiboan integratzeko, alde zuzenetik dramatizazioaren esperientzia bizitzeak irakaslegaien prestakuntzan ekarpen garrantzitsua egin dezake. Praktika parte-hartzaile, kolektibo, sortzaile eta pertsonal honetan, hausnarketa teorikoa integratzeak formakuntza hobea izateko aukerak handitzen ditu (Borda, 2015).

Garrantzitsua da bertan adierazpena eremu guztietan integratua egotea eta ez bakarrik eremu kognitiboetan, pertsonaren dimentsio guztiak lantzen direla ziurtatzeko. Vieitesek (2012) adierazpen dramatikoari “bizitzaren eskola” definizioa ematen dio, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, konpetentziak zeharkako eran lantzea ahalbidetzen duelarik.

Dramatizazioaren bitartez, irudimena aktibatzen, komunikazio konpetentzia eskuratzeko, adierazpen sortzaileak eta konpetentzia sozialak hobera egiteko, eta beraz, norbanakoaren konfiantza garatzeko, behar-beharrezko abilezia linguistikoak lantzen dira (Laferrière, 2001). Bakoitza bere bizipenetatik eta ikaskuntza eskemetatik abiatuz, helburuak eskuratzeko beharrezko ezagutza eta gaitasunak barneratzen joango da, baina Laferrièrek (2001, 164 orr.) dioen bezala, “helburua, soilik hura bera ahazten lortuko duzu”, hau da, prozesu dramatikoan biziki sartuz.

Prozesu dramatikoan, irakasleek paper garrantzitsu bat hartzen dute eta dramatizazioaren inguruko proposamen pedagogiko bat aurrera eramateko orduan, kontuan izan beharreko beste faktore bat antsietate gabeko egoerak sortzea da, inor epaitu gabe, jolasari, sormenari eta originaltasunari esperientziaren protagonistak izaten utziz. Era horretan, prozesu dramatikoak berezko garrantzia hartuko du eta ikasleek horren esentzia zentzu orokorrean hartuko dute (Borda, 2015).

2.2.2. Jolas sinbolikotik dramatizazioaren bitartez trebatzeko

Dramatizazioan jolasaren bitartez, hurrek zein helduek, pertzepzioak organizatzen dituzte, emozioak kontrolatzen esperimendatzen dute, euren buruarekiko ezagutza hobetuz, haien gaitasunak ateratzen dituzte eta haien esperientzia gozaten dute hura ulergarriagoa egiten (12/2009 dekretua). Jokuaren bidez, sormena eta komunikazioa ere lantzen dute, norbere gorputza esperimendatze iturria delarik, eta honi, **jolas dramatikoa** deitzen zaio, Alvarez-Uriak eta Tresserrasek (2014) azpimarratzen duten bezala, jolas dramatikoa dramatizatzen ikasten hasteko aukera paregabea delarik.

Jolas dramatikoa, dramatizazioaren sinonimotzat har daiteke, biak espresatzeko era antolatua baitira, zeinetan prozesuak emaitzak baino garrantzia handiagoa duen (Nuñez eta Navarro, 2007). Gaur egun, dramatizazioak eta jolas dramatikoak bat egiten dute: “la dramatización es hoy sinónimo de juego dramático. Puede plasmarse mediante el lenguaje de los gestos (juegos mímicos) o mediante el corporal y el verbal, ya sea actuando de modo directo los jugadores (juegos dramáticos personales) o bien con el uso de sustitutos simbólicos dramáticos (juegos proyectados con máscaras, títeres o sombras)” (Tejerina, 1994, 120 orr.). Alvarez-Uriak eta Tresserrasek (2014), aldiz, jolas dramatikoak edo dramatizazioak biltzen dituen beste ekintza ezberdin batzuk aipatzen dituzte, beste batzuen artean, imitazioak, inprobisazioak, rol playing-ak, ipuin dramatizatuak, taldean asmatutako istorioak, etab.

Nahiz eta jolas dramatikoak dramatizazioarekin harreman estua izan, honekin bereziki lotura duena **jolas sinbolikoa** da (González, 2015). Jolas dramatikoan ez bezala, ez da behar izaten heldutasun maila bat (Nuñez eta Navarro, 2007), hots, jolas sinbolikoa jolas dramatikoa baino lehen gertatzen da. Jolas sinbolikoa dramatizazioaren oinarria da, hurrek hasieratik, txiki txikitatik errealitatean bizi dituzten rol ezberdinak antzezten baitituzte (Reina, 2009 in González, 2015). Jolas dramatikoa, aldiz, hurrengo etapan agertuko litzateke, prozesuari antzezlan formal batekin amaiera emanaz (Tejerina, 1994).

Jolas sinbolikoa jolas espezifikoa, espontaneo eta irudimenezkoa da, non umeek errealitatea bereganatzen duten. Jolasa keinuen instrumentu sinboliko bihurtzen da, gerora hizkuntza dramatikoa

deituko dena (Tejerina, 1994). Argi dagoena da, jolasa umearen pentsatzeko, probatzeko, erlaxatzeko, lan egiteko, gogoratzeko, lehiatzeko, ikertzeko, sortzeko eta bere baitan sartzeko daukan era den heinean, hau, hezteko modurik egokiena dugu (Slade, 1978 in Tresserras, 2017).

2.2.3. Hazkuntza sozioafektiborako

Haur Hezkuntzako irakaslegaien formakuntzari dagokionez, ikerketa lan berriek irakaskuntzan konpetentzia sozioafektiboak, behar dena baino gutxiago garatzen direla agerian uzten dute eta hauen garapena, oraindik oinarrizko formakuntzan erronka handia suposatzen dute, nahiz eta irakaskuntzarako ezinbestekoak izan (Bisquerra, et al. 2005).

Ikerketaren emaitzak kontuan hartuta, aipatu beharrik ez dago irakaslegaien formakuntzan konpetentzia sozioafektiboak eskuratzeko beharra dagoela, ikasleen ikasteko era, erritmoak, denbora eta autonomia zainduz eta errespetatuz. Konpetentzia sozioafektiboak garatzeaz gain, formazio orokorra funtsezkoa da; non adierazpen eta komunikazio gaitasunak garatzen diren; esperimentazioa eta jolasa gehitzen diren; eta behaketa, hausnarketa eta formakuntza pertsonalaren bitartez identitate eta kultura profesionala ezagutzen den (Tresserras, 2017). Irakaslegaien rolak garrantzia berreskuratzen hastea beharrezkoa da, hezitzaileek arlo pertsonal, zientifiko eta pedagogikoan oinarritutako kalitatezko formakuntza bat jasotzea ziurtatuz (Berasaluce, 2008).

2.2.3.1. Garapen pertsonalaren beharraz ohartu eta honen izaera holistikoa ulertu

Dramatizazioa norbanakoaren gaitasunak aprobetxatzea helburu duen baliabidea da, bakoitzaren garapen pertsonala aberasten duelarik (Nuñez eta Navarro, 2007). Garapen integrala dela esan daiteke, arlo guztietan ematen baita: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, morala, afektiboa nahiz emozionala, estetikoa eta espirituala (237/2015 Dekretua, 2015). Aipatutako arlo guztietan garapena bermatzeko, gure ingurune soziokulturalarekiko harremana sustatzea komeni da, komunikatzeko ahalik eta modu gehien ezagutzeko eta ikasteko (Nuñez eta Navarro, 2007).

Lanketa pertsonal horretan erabiltzen diren teknika askok, lotsa kentzen laguntzen dute, hala nola, jolasa, inprobisazioa, plastika, musika eta dantza (Borda, 2015). Horiek esperimentatzearen ondorioz, ikasleek dramatizaziora heltzeko prozesua emaitza baino garrantzitsuagoa dela ikasten dute eta parte-hartzaileei sortzaileak izateko aukera ematen zaienez, haiengan eta haien trebetasunetan konfiantza lortzen dute (Nuñez eta Navarro, 2007). Paveyk (1982) horri, gaitasun fisiko eta mentalez gain, komunikazioa garatzen dutela gehitzen dio, haien komunikatzeko erak zabalduz, behar bezala esperimentatzeko, pentsatzeko eta ekiteko gai izateko.

Sormenari dagokionez, aipatu beharra dago dramatizazioak alor hau garatzeko bere elementu motibagarria dela (Tapia, 2015/2016), haren oinarrizko helburu bat adierazpena bere zentzu guztietan garatzea baita eta bestea, adierazteko modu anitz horien bitartez sormena sustatzea (Cervera, 1981). Orokorrean, sormena pertsona bezala garatzeko ezinbestekoa den elementua da, hau, hezkuntza eredu guztien helburua izanik (Nuñez eta Navarro, 2007).

Irakasleentzat, sormena dramatizazioaren bidez garatzeko, inprobisazioarekin ez da nahikoa, sesio bakoitzak bere egitura eta prozesu zehatza izan behar du, garapena behar bezala gerta dadin (Nuñez eta Navarro, 2007). Haur Hezkuntzako Graduan, zehazki dramatizazioaren ikuspegitik, *artista pedagogoak* heztea (Laferrière, 1997), gradu honetako ikasleei sormena garatzea eta kritikotasun zentzua hobetzea ahalbidetzen du, prozesuaren elementu guztien arteko lotura eginik eta haien prozesuan autonomoak izatea lortuz.

Eskolako dramatizazioak umearen adierazpen sortzailea garatzeko dagoen erarik konplexuena da, hezkuntzan ematen diren prozesu sortzaileak bultzatzeko modu eraginkorra alegia (Diez, 1980 in Nuñez eta Navarro, 2007). Eskolaren bitartez eta bertan sortzen diren emozio ezberdinei esker, umeeek haien sentimenduak eta emozionalki zelan eragiten dieten identifikatzen ikas dezakegu (Tresserras, 2017).

2.2.3.2. *Bizikitzezari aukera bat eman*

Dramatizazioa gatazken ebazpenerako baliabide oso baliotsua da (Nuñez eta Navarro, 2007), baita bakoitza bere gogo-aldartean eta sentimenduen kontzientzia hartzeko bide bat ere. Bizikidetzak, berdintasunean eta elkarkidetasunean oinarritzen den zeharkako ikaskuntza bat aurrera eramateko aukera ematen du. Taldean lan egiteak, kooperazioa sustatzen baitu eta, beraz, Haur Hezkuntza Gradu ikasleentzat, aurkikuntza kooperatibo eta parte hartzaile bat suposatuz dezake.

Finen, espazio eta baliabide eraginkor berak partekatu behar dira, bakoitzak taldean duen eraginaren kontzientzia hartuz eta besteen ekarpenak errespetatzen ikasiz (Pavey, 1982). Taldeko komunikazioa eta haien arteko errespetua emaitzetan nabariko da, eta ez die soilik dramatizazioa praktikara eramateko balio, bazik eta hezitzaile eta pertsona hobeak izateko ere bai (Borda, 2015).

Hezitzaile edo irakaslearen paperak garrantzia handia du, dramatizazioak ikaskideen arteko konplizitatea eskatzen baitu eta irakasleak ikasleak taldearengandik baloratuak, errespetatuak eta lagunduak sentitzea bermatzeko eta tentsio eta larritasun egoerak ekiditeko gai izan behar da (Aranguren et al., 1996). Baina ez hori bakarrik, ikasleen arteko sozializazioa errazten duen espazio bat eskaini behar du, ikaskuntza esanguratsu bat sustatuz (Nuñez eta Navarro, 2007).

3. HELBURUAK

Azterlan honen helburu nagusiak honako hauek izan dira:

- Haur Hezkuntzako Graduaren prestakuntzaren inguruko irakaslegaien pertzepzioa ezagutu eta *“Adierazpen eta Komunikazioa Dramatizazioaren bitartez”* minorra aukeratzeko arrazoiak aztertu.
- *“Adierazpen eta Komunikazioa Dramatizazioaren bitartez”* minorrak Haur Hezkuntzako irakaslegaien prestakuntzan egiten dituen ekarpenak identifikatu.

- “*Adierazpen eta Komunikazioa Dramatizazioaren bitartez*” minorrenen gabeziak aztertu eta irakaslegaien ekarpenak jaso bere hobekuntzarako.

4. METODOA

Hezkuntzan eta beste arlo batzuetan egin diren ikerketak kontuan hartzen badira, bistan dago ikertzaile gehienek arazo baten inguruan ikertzen dutela, arazo horren oinarria edo zergatia zein den planteatu gabe, irtenbideren bat bilatzeko asmorik gabe (Miguel Martinez, 2009 in Colmenares, 2012). Azterlan honek, aipatu denaren kontrakoa egitea izan du xede, eta hezkuntzaren, zehazki, Haur Hezkuntzaren gabezia bat abiapuntutzat hartu eta gabezia horri irtenbidea bilatzea izan da asmoa, hain zuzen ere, bere irakaslegaien prestakuntza.

Horretarako, ikasleen ahotsak jaso nahi izan dira, egoera edo gertaera bati buruz parte hartzaileek duten pertzepzioak jasotzeko. Helburua, partaideen iritzi, behar, interes eta arduraren informazio sakon eta zehatza eskuratzea izan da (Latorre, 2003). Ekintza parte-hartzailea da nagusi, beste metodo batzuekin konparatuz, errealitate sozialera gehiago hurbiltzen delarik (Colmenares, 2012).

Metodologia kualitatiboa abiapuntu izan da, zenbakiez baino hizkuntzaz baliatzen baita, emaitza askoz ere sakonago eta osatuagoak lortuz. Aspektu kualitatiboa ez ezik, hausnartze-metodologia badela ukaezina da, hasieratik amaierara arteko prozesuari buruzko hausnarketa kritikoa eginarazi baita (Colmenares, 2012).

Prozesu osoan zehar partaideen ahotsei indarra eman zaie, haien ikuspuntua jakitea aberasgarria izan delako, haiek euren azalean bizi izan dutelako prozesua eta Juaristik (2003, 169 orr.) dioen bezala, “zerbait aztertzeke eta ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea da”. Biderik aproposena prozesua bizitzen ari direnen iritzia ezagutzea izan da, galdera zehatzak eta hausnarketara bideratutakoak eginez. Era honetan, gabeziari irtenbide bat emateko prozesua hurbiletik bizi dutenen ikuspuntu ezberdinak hartzen dira kontuan.

Aldez aurretik, prozesuan erabilitako tresnak azalduko dira, azterlan hau aurrera eraman den testuinguruan eta honetan parte hartu dutenen informazioa azalduz; eta, azkenik, informazioa aztertzekeko prozedura zehaztuz.

4.1. Azterlanaren testuingurua eta parte-hartzaileak

Azterlana Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean gauzatu da, bertan, Haur Hezkuntzako Graduoko *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorra 2018-2019 ikasturtean matrikulatu diren ikasleekin. Minor hau 4.mailan hautatzeko aukera dago, beste bi minorrekin batera: *Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna* minorra, eta *Kulturartekotasunaren* minorra. Aurten,

Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrean 45 ikasle egon dira, horietatik 41 neskak direnak eta gainerako 4ak mutilak.

Nire partetik esan beharra dago, aipatu bezala, *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasle izan naizen heinean, azterlan honetan ikertzaile parte-hartzailea bilakatu naizela, azterlan honek ikertzailea ikertze-prozesuaren parte izatea eskatzen baitu. Beraz, aztertzailea aktibo bihurtzen da, aztergaiaren beharrak eta arazo nagusiak hurbiletik identifikatzen, informazioa jasoz, erabakiak hartuz eta gaiaren inguruan hausnartuz (Colmenares, 2012). Alderdi honek ikasleengan konfiantza puntu bat gehitu du, haiek euren iritzi eta pertzepzioak egoera erosoago batean kanporatu ahal izateko.

4.2. Erabilitako tresnak

Prozesuan zehar egiten den datu bilketa azterlanaren atal garrantzitsu bat da, non aztertzaileak horren arabera ondorio batzuk edo beste batzuk ateratzen dituen (Latorre, 2003). Datu bilketa hori ahalbidetzen duten hainbat tresna, estrategia eta baliabide audiobisual erabil daitezke, beste batzuen artean, elkarrizketak, bideo grabazioak, dokumentuen analisiak, etab. Azterlan honetan erabilitako estrategia eztabaida taldeak izan dira, hauek datu biltze estrategia bezala, garrantzia handia dutelako.

Ikasle taldea bitan banatuta, bi eztabaida egin dira; lehenengoa, kurtso hasieran gauzatu zen, 2018ko urriaren 25ean; bigarrena, aldiz, 2019ko martxoaren 15ean, hots, kurtso amaieran. Horrela, hasieratik amaierarako aldaketa ikusi nahi izan da, ikasleen iritziak entzunda. Lehenengo eztabaidan, Haur Hezkuntzako Graduarekin eta, esplizituki, minor horrekin zerikusia duten eta alde zuretik prestaturiko gidoiko galdera batzuk bota ziren (*ikus. 9.2. eranskina*), haien arteko eztabaida sortzeko asmoz. Haien iritziak partekatu ondoren, bigarren eztabaida taldeko gidoia prestatu (*ikus. 9.3. eranskina*) eta aurrera eramane zen. Bigarren horretan planteatutako galderak zehatzagoak izan ziren lehenengo eztabaidako ikasleen erantzunak kontuan harturik.

Eztabaidetan informazioa jasotzeko tresnei dagokienez, lehenengo eztabaidan, talde txiki bakoitzeko bideo kamera bat erabili dela aipatu behar da, pare bat grabagailu eta landa oharrak hartuz. Bideo kameraren bitartez, informazioa bere osotasunean eskuratzen da, ahotsez gain, detaile txikiak ere detekta daitezkeelako, adibidez, aurpegien espresioa, keinuak, begiradak, etab. Grabagailuen laguntzarekin, bideo kameran ondo preziatzen ez zen zenbait informazio jaso da. Osagarri legez, landa oharrak erabili dira, hauen xedea testuinguru horretan gertatzen denaren narrazio eta hausnarketa ahalik eta zehatz eta osatuena lortzea da, baita parte hartzaileen ekintza eta elkarrekintza ere bai (Latorre, 2003).

Bigarren eztabaidan, aldiz, grabagailuekin ahotsak ongi identifikatzen zirenez, hauek soilik erabiltzea erabaki zen, bideo kamerarekin grabatu gabe. Izan ere, arestian aipatu bezala ikus entzunezkoek informazio aberasgarria proportzionatzen dutenez, horien ordean, argazkiak atera ziren, hauek ere egoera batzuetako datu zehatzak emanez.

4.3. Informazioa aztertze prozedura

Behin eztabaidak amaitu eta grabatu ondoren, transkripzioak egin dira, hauen prozesua eztabaida bakoitzean ezberdinak izanik. Hasierakoan, transkripzioak literalki gauzatu ziren, hots, esaten zen guztia idatzi zen. Azkenengoan, berriz, soilik informazio garrantzitsuenaren transkripzioa egin zen, Elliottek (1993) azpimarratzen duen bezala, baliagarriagoa gertatzen baita lehenengo ahotsak entzutea, gertakizun esanguratsuetan zentratuz eta hauek soilik transkribatuz.

Beraz, ikasle bakoitzaren ahotsa kontuan hartu denez, ahots kopurua, zeren inguruan hitz egin duten eta ahots hauen sexua jakin daiteke. Hortaz, ahotsek diotenaren arabera, sistema kategoriala egin da, hala nola, ahots horiek gaika antolatuz, eta dimentsioetan, kategorietan eta azpikatekoretan sailkatuz. Azkenik, gai bakoitzaren inguruan zenbat ahots aritu diren jasotzen da.

1. Taula

Sistema kategoriala

DIMENTSIOA	KATEGORIA	AZPIKATEGORIA (1. gradukoa)	AZPIKATEGORIA (2. gradukoa)	AHOTSAK
Irakaslegaiak euren prestakuntzan identifikatutako gabeziak		Egoera-alderdi pedagogiko zehatzen prestakuntza falta	0-3 etapa	3
			Lehen sorospenak	2
			Behar bereziak	2
			Bullying-a	2
		Praktikatik teoria ikastearen beharra	13	
Ikaslegaien espektatibak <i>Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrarekiko</i>	Fakultatean eskaintzen diren beste minorrak ez dira interesgarriak			3
	Norbere buruaren limiteak ezagutzeko aukera			3
Minorrean hobetzeko alderdiak	Lan teorikoan	Hausnarketa pertsonal gehiago		4
		Marko teorikoak eraikitzen eta APA arauak erabiltzen ikastearen beharra		5
	Sorkuntza prozesuan	Prozesuaren antolakuntza		6
		Antzerkia umeen aurrean gauzatzeko aukera		4
		Musika ikasgaia moduluaren parte izatea		5
		Graduan zehar dramatizazioa derrigorrezko ikasgaia izatea		1

DIMENTSIOA	KATEGORIA	AZPIKATEGORIA (1. gradukoa)	AZPIKATEGORIA (2. gradukoa)	AHOTSAK
Minorraren ekarpenak irakaslegaien prestakuntzan	Dramatizazioa ekarpen pedagogiko bezala			23
	Egiten ikastearen aberastasuna			7
	Umeen hizkuntza anitzetatik trebatzeko aukera ematen du			3
	Euren hazkuntza sozioafektiboa bermatzea	Garapen pertsonalaren beharraz ohartzea	Norberak bere buruaz barre egiten ikasi	2
			Lotsa kendu	6
			Besteen lana baloratu	8
		Emozioak kudeatzen ikastea	Emozioen izaera duala identifikatuz	4
			Konfort ateratzeko gaitasuna landuz	16
			Bizipenak identifikatuz eta hauei hitza jarritz	11
			Lana denbora mugatuan kudeatzeko gaitasunak garatuz	20
			Bizikidetzari aukera bat ematea	Talde lanean sortu diren beharrak identifikatuz
Gatazkak kudeatuz	2			
Etorkizuneko irakasle gisa egin dizkien ekarpenak	Ikasle-irakasleen arteko harremana			7
	Kidetasuna			5
	Baliabide anitzak ikastea			3

Aztertze prozedurarekin amaitzeko, azpimarratzea, ahotsak aipatzerako orduan, lehenengo eztabaida E1 kodearekin eta bigarrena E2 kodearekin identifikatuko direla. Eztabaida bietan bi talde bereizten direnez, bigarren taldeari men egiten zaionean, T2 jarriko da E1 edo E2ren jarraian. Ondoan, neska ala mutila izan den zehaztuko da. Datari dagokionez, ez da ahots guztietan aipatuko, arestian esan baita lehenengo eztabaida kurtso hasieran gauzatu zela eta bigarrena, berriz, amaieran.

5. EMAITZAK

Atal honetan, Gasteizko *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasleekin gauzatutako bi eztabaidatan ikusitako emaitzak azaltzen eta interpretatzen dira. Horietan, Haur Hezkuntzaren Graduan eta, batez ere, minorrean ikasleek jasotako prestakuntzaren inguruko ahotsak aztertzen dira. Ikasleen iritzietan, nahiz eta prozesuan alderdi positibo asko egon, hainbat gabezia

topatu dira. Ikasleek minorrarekiko alde zurreriko izandako motibazioa aitortzen dute, haien geroko esperientzietan oinarrituz, aldaketa nabaria izan dela aipatuz.

Guzti honek, funtsezko ideia batera eramaten gaitu: irakaslegaien prestakuntza dramatizatzeak duen garrantzia. Hala, ikasleek, dramatizazioak zertarako balio duen kontzientzia hartzen dute, ahotsak minorrak horretan dituen ekarpen pedagogikoei men eginez. Ahots hauen bitartez, prozesuan, bizipenetan oinarritutako ikaskuntzek garrantzia hartzen dutela ikus daiteke, batez ere, alderdi sozioafektiboarekin zerikusia dutenek.

5.1. Irakaslegaien euren prestakuntza identifikatutako gabeziak

Haur Hezkuntzako Gradu *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasleei 4. maila arte jasotako prestakuntzagatik galdetu zaienean, batez ere ondorengo gabezietaz jabetzen dira: egoera-alderdi pedagogiko zehatzen prestakuntza faltaz eta teoria praktikatik ikastearen beharraz.

5.1.1. Egoera-alderdi pedagogiko zehatzen prestakuntza falta

Egoera-alderdi pedagogiko zehatzen prestakuntza faltaz hitz egiten dutenean, gabezia hauetaz hitz egiten dute: 0-3 etapako formakuntza; lehen sorospenteko prestakuntza; eta bullying-aren eta behar bereziak dituzten haurren inguruko informazioa. Hasteko, gradu honetan 3-6 urte bitarteko etapari, **0-3 etapari** baino garrantzia handiagoa ematen zaiola aipatzen dute.

“Uste dut gradu honetan garrantzia gehiago ematen zaiola 3-6, 0-3 urteetara baino” (E1, neska).

“Nik goi mailako gradu egin nuen eta uste dut unibertsitatean falta den ikasgai oso garrantzitsu bat Autonomia ikasgaia dela, adibidez, hemen irakasten ez dizuten gauza oso garrantzitsuak erakusten dizutela” (E1, neska).



1. Irudia: Neska bat eztabaida taldean goi mailako graduan izandako esperientziaz aritzen.

Gehienbat, lehenagotik Haur Hezkuntzako goi mailako gradua eginda zutenek iradokizun horrekin bat egin zuten, haiek goi mailako graduan bereziki 0-3 urte bitartera zuzendutako ikasgai bat baitzuten eta horren inguruko zehaztasunak gradu honetan zehar ez baitzituzten eskuratu. Beste batzuek, bestelako faltak sumatu izan dituzte, hala nola, **lehen sorospenetako prestakuntza**.

“Nik sumatu dudana gehien faltan urte guztietan zehar izan da lehen sorospenetako prestakuntza” (E1, neska).

“Bai, nik hori ere bai” (E1, mutila).

Askotan, praktika garaian, horrelako kasuetan ikusi baitira eta are gehiago, horrelako kasu asko irakasle gisa ikusi eta bizi izango baitituzte etorkizun batean, hortaz, horren ardura egotea oso ohikoa da. Hizpide den beste buruhauste bat tutoreak direnean **behar bereziak** dituzten haurrekin zelan jokatu izan da, baliabide falta aurkitzen baitira.

“Behar bereziak dituzten hurrei nola lagundu, hori, agian gure espezializazioa dramatizazioa izan arren, behar bereziak tutoreak garenean ere gelan izan daitezke haurrak egoera hauetan, orduan horiei aurre egiteko ere ba agian baliabide falta” (E1, neska).

Lehen aipatu bezala, hori irakasle direnerako beste errealitate bat izango da eta orokorrean graduan baliabide gutxirekin aurkitu izan dira horrelako egoerei aurre egiteko. Baina kasu bi horiek ez dira bakarrik izan, **bullying** kasua ere azaleratzen da, ikasle batek horrelako egoera baten aurrean zer egin ez lukeela jakingo azaltzen duenean.

“Nik bullying gaiarekin zerikusia duen gaiak lantzea faltan bota dut. Orain eskola batera joaten naizenean, horrelako kasu bat ikustean nik ez nuke jakingo zer egin, ez dakit kasu hori aurrera eramaten” (E1, neska).

“Bai, adibidez bullying-aren inguruan ez dugu ia-ia hitz egin... Ideia bat izango nukeela uste dut baina ez hemen ikasi dudanagatik” (E1, T2, neska).

Alderdi hauetaz, esan bezala, gehienbat praktika garaia heltzerakoan konturatzen dira, egoera zehatzen aurrean aurkitzean ez baitute jakin zer egin. Hala eta guztiz ere, esperientziak beste jakintasun maila bat ematen dizula uste dute, graduan zehar eskoletan ematen diren egoera guztiak lantzea ezinezkoa baita. Bigarren eztabaidan gai horrekiko kezka nabarmena izan zen, hezitzaile izateko gutxi dakigula azpimarratuz, soilik oinarri txiki bat eskuratzen baitugu.

“Baina zu hezitzaile izango zarenean, hainbat koloreetako egoera ezberdinak izango dituzu eta guk %100tik %20a bakarrik dakigu” (E2, neska).

“Bai, gero lanketa bat behar dugu, oinarria bakarrik daukagu” (E2, mutila).

Bigarren eztabaidan nahiz eta galdera hau ez egin, bistan dago hasierako sentsazio bera jarraitzen izaten dutela, gradu osoko eragina dagoela eta ez azkeneko urte honetakoa. Orokorrean, egoera-alderdi zehatzen prestakuntza faltarekiko larritasuna irakaslegaien artean nabaria da, kezka hori graduan zehar jaso izan ez duten formazioagatik sortzen delarik.

5.1.2. Praktikatik teoria ikastearen beharra

Aipatutako formakuntza eza, teoria praktikan ez jartzearekin lotzen dute, ikasle batek dioenez, Curriculuma haurrari egokituta egon behar dela ikasten dute baina ez dakite zelan aplikatu, esate baterako, ikasle horrek KIBA proiektua faltan bota duela dio.

“Beti diote, gaur egun, haur bakoitzaren egokitze curriculuma garrantzitsua dela. Hori teorian ematen duzu baina praktikoki ez dakizu zelan aplikatu. Gero bullyingarekin, nik adibidez orain arte faltan bota dut adibidez KIBA proiektua, eta horrek indar handia dauka, gu irakasle izatera bidean gaudela, hori faltan bota dut asko” (E1, neska).

“Hona heltzen gara, aukietan jartzen gara eta beti gaude teoria ematen, eta nik faltan sumatu dudana praktika da, azken finean simulakro baten bizi gara eta inoiz ez dakigu errealitatean praktikara eramaten” (E1, neska).

Ahotsetan ikus daiteke arestian aipatu diren beldurrak praktikan ez jarri izanaren ondorio direla, gai hauen inguruko teoria eman baitute baina praktikara eramaterakoan baliabide gabe aurkitzen dira. Alderdi honetan, beste neska batek curriculumari gu izango garenari baino garrantzia gehiago ematen zaiola azpimarratzen du.

“Garrantzia handiago ematen diote curriculumari gu benetan izango garenari baino” (E1, neska).

Hemen nabaria da teoria praktikan jartzen ez jakitearen beldur direla eta Curriculumekeo edukiei bakarrik garrantzia ematen zaionaren sentsazioa dutela. Horregatik, orokorrean graduak egoera hau ekiditen laguntzen ez duela ondoriozta daiteke.

5.2. Irakaslegaien espektatibak *Adierazpena eta Komunikazioa* *Dramatizazioaren bidez* minorrarekiko

Irakaslegaiei galdetzen diegunean ia zergatik aukeratu zuten minor hau, bi alderdi aipatu dituzte: bat, eskaintzen ziren beste aukerak ez zituztelako gustuko eta bi, norberak bere limiteak ezagutzeko balio izan ahal zuela pentsatzen zutelako.

Hala, beste batzuen artean, bi ikaslek **fakultatean eskaintzen diren beste aukerak interesgarriak ez direlako** hautatu izan dutela minor hau aipatzen dute. Gehienentzat, nahiz eta minorreko gaia gustukoa izan, aukeraketa hori psikomotrizitatearekin zerikusia duen minorra ez egotearen edota beste aukerak baztertzearen ondorio izan da.

“Beste aukera guztiak ez zaizkidalako gustatzen aukeratu dut, azkenean, dramatizazioa gustuko dut eta oso pozik nago, nire burua ikusten dut baina nik berez psikomotrizitatea egin nahiko nuke” (E1, neska).

“ ‘Descarte’, baina baita ere, beti lotu izan dudalako dramatizazioa eta esperimantazioa” (E1, mutila).

Horrek esan nahi du, orokorrean ez zutela aukera gogokorik izan eta nahiz eta hasieran, haien motibazioa intrintsekoa ez izan, minor guztien artean aukeratutakoa erakargarriena iruditu zitzaizela. Beste batzuek, nahiz eta minorra oso deigarria ez gertatu, **norberaren limiteak ezagutzeko** aukeratu zuten.

“Hau aukeratu nuen nire burua ezagutzeko eta ikusteko noraino heldu ahal naizen eta zer limite ditudan eta zer aldatu dudan” (E1, neska).

“Gehien erakartzen ninduena zen baina, nolabait ere, nire burua neurtzeko eta noraino heltzeko kapaza nintzen ikusteko, lotsagatik...” (E1, neska).

Haien mugak gainditzeko aukeratu zutela aitortzen dute, dramatizazioa erronka bat bezala hartu baitzuten. Horregatik ikus daiteke, minor honen aukeraketaren zergatietan inork ez zuela aipatu hasiera batetik gustukoena edo interesgarriena iruditzen zitzaie. Interpreta daiteke gehienek ez dakitela dramatizazioak Haur Hezkuntzan duen garrantzia. Formakuntza eza horrek, lotura zuzena dauka eskoletan dagoen praktika eskasarekin. Azken finean, eskoletan ez bada dramatizaziorik ikusten, ez zaio behar bezalako garrantzia emango, eta kontrakoa, ez badago horren inguruko aurretiko prestakuntzarik, ez da eskoletan praktikan jarriko.

5.3. Minorraren hobetzeko alderdiak

Behin minorraren barneko prozesuan egonda, eztabaidetan honen hobetzeko aspektuak ere agertu dira: lehenengoan, gehienbat lan teorikoei buruzko hobekuntzak aipatzen dira, bigarreanean, berriz, sorkuntza prozesuaren ingurukoak.

5.3.1. Lan teorikoan

Hasteko, lanei dagokienez, ikasle batek **hausnarketa pertsonala** faltan bota izan duela adierazten du.

“Bi hilabete honetan lan pertsonala, bakarkako lana. Dena taldeka egiten dugu, horretara ohitu behar garela etorkizunean taldeka egon behar garelako, baina momentuak hausnarketa pertsonalerako oso gutxi daudela uste dut” (E1, neska).

“Hausnartzeko, bizitzen duzu baina ez dizu denbora ematen buruarekin lotura egiteko” (E1, neska).



2. Irudia. Ikasleak Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak ikasgaiari meditazio txiki bat egiten.

Egia da, ikasle askok agian zailtasun gehiago izan dituztela talde lanean aritzerakoan, eta lan pertsonala ere faltan bota izan dezaketela. Gainera, esperientziak bakoitzak modu ezberdin batean

bizitzen ditu eta hori taldeko lanetan ez da ikusten. Aurrerago, aldiz, ez da horrelako kezkarik azalatu, bakarkako hausnarketak egiteko aukera gehiago suertatu baitira.

Hasieran nahiz amaieran, marko teorikoak egiterakoan sortu zaizkien arazoak aipatu dituzte. Lehenengo eztabaidan, azkeneko urtera arte ez dutela **marko teoriko bat eta bibliografia** ondo egiten jakin aipatzen da, horrek lanak egiterako orduan asko gelarazten. Bigarren eztabaidan, ideia bera errepikatzen dela ikus daiteke.

“Orain arte berez jakin beharko genituzkeenak, ez dakizkigu, marko teorikoa adibidez” (E1, T2, neska).

“Eta orain laugarren mailan, denbora pila bat galtzen dugu hori egiten berez, automatikoki ahalko genuena egin. Galtzen dugu denbora gehiago APA arauak egiten bestea egiten baino” (E1, T2, neska).

“Nik marko teorikoarekin izan dugun zailtasuna komentatu nahi dut. Orain arte egin duguna ez dugu ondo egin eta niretzako muga bat izan da. Nik uste dut hori lanean hasi aurretik landu behar dela, agian beste kurtso batean” (E2, neska).

Ondoriozta daiteke, gai horren inguruan ikasle asko ados jartzen direla, denek bizi izan baitute arazo bera marko teorikoa gauzatzekoan eta horretan aurretiko prestakuntza ezak influentzia handia du, aurreko hiru urteetan ez baitzaio marko teorikoari eta bibliografiari hainbesteko garrantziarik eman.

5.3.2. Sorkuntza prozesuan

Antzerkiaren sorkuntza prozesuan gehiago zentratzen doazen heinean, **prozesuaren antolakuntza**rekiko kexa ikusten da, ikaskuntza teoria praktikan gehiago jarriz bideratu beharko litzatekeela azalerratu.

“Antzerkiaren teoriarekin hasi ginen eta antzerki osoa urtarrietik ona prestatu behar izan dugu. Nik uste dut alderantziz izan beharko litzatekeela, lehenengo frogatzen hastea eta hortik teoria ateratzea. Horrela, teoria gure antzerkian gehiago zentratuz” (E2, neska).

Praktikaren baliagarritasuna nabaria da, ikasleak konturatu direlako, modu horretan askoz gehiago ikasten dutela eta ikasketa esanguratsuagoa gertatzen dela. Neska horren hitzetan, teoria, talde bakoitzak sortutako antzerkiarekin zerikusia izan beharko luke, era honetan teoria orokorra eman beharrean, gai zehatz batera bideratuta egongo litzateke. Hala eta guztiz ere, zehaztasun horrek formakuntza mugatu lezake, formakuntza orokorra jasotzea garrantzitsua izanik ere bai.

Beste puntu bat, **antzerkia hurrekin praktikara eramatea** izan da, ideia hori ikasle batek aipatu ondoren, beste batek, elkarrekintza hori izateko eta haien jarrerak eta erreakzioak ikusteko baliagarria izango zela gehitzen du.

“Nik antzeppen hauek umeentzako egingo nituzke ere, umeak hona ekarri” (E2, T2, neska).

“Bai, elkarrekintza gehiago umeekin, jarduera gehiago, euren munduan gehiago sartzeko eta zelan erreakzionatuko duten eta haien jarrerak ikusteko” (E2, T2, neska).

Bi ahots hauek antzerkiaren inguruan ari dira, azkeneko antzeppenak³ soilik ikasle eta irakasleei bideratutakoak baitira eta horretan ezin da jakin zein izango den umeen erreakzioa.

³ [Dramatizazio minorreko antzeppen laburpena](#)

Lehenengo eztabaidan, baita haurren ikuspegiaren falta aipatzen da ere, oraingo honetan modu globalean hitz egiten.

“Minor honetan nire ustez falta da hurrekiko ikuspegia, orokorrean gaude zentratuta antzerkian eta haurren ikuspegia edo hurrengan zentratze hori faltan botatzen dut” (E1, T2, neska).

“Klaseetan ez dut haurren inguruko erreferentziarik ikusten adibidez. Ikusten dut baliabide batzuk badirela baliagarriak hurrekin aplikatzeko baina hori...” (E1, T2, neska).

Orokorrean esan daiteke hasieratik ikusi dela teorian zein praktikan haurren ikuspegia falta izan dela, minor honek aspektu horren inguruko interakzio gehiago eskatzen baitu. Faltan sumatu izan den beste arlo bat, **musika** izan da, eta orokorrean, honek moduluan parte hartu beharko lukeela azaldu dute.

“Nire ustez musika K6an sartu beharko litzateke” (E2, T2, neska).

“Nik musikaren inguruko aholkuak bota ditut faltan, gauza asko egin ahal ziren musikarekin” (E2, T2, neska).

Musikaren praktikotasuna klasean soilik ikusi ahal izan da, eta horrek ez du hainbeste aberasten, esaterako, dramatizazio eta margolan musikalak, klasetik kanpo ezin izan baitituzte praktikan jarri. Gainera, segun eta zer antzerki mota egin, musikak garrantzia bat edo bestea hartuko du eta ikaskide batek ez hitzezko antzerkietan musikak garrantzia handia duela gehitzen du.

“Gainera, antzerki asko ez hitzezkoak ziren eta musikak hor garrantzia handia du ere” (E2, T2, neska).

Talde gehienek, musikaren inguruan asko jakin gabe aritu dira antzerkia sortzen, eta nahiz eta, antzezlan guztietan honen presentzia egon, seguruenik, askoz lagungarria izango litzateke musika moduluen parte izango balitz. Bigarren eztabaidako neska batek, ikuspegi orokorrago batekin, aditzera ematen du **graduan dramatizazioari buruzko ikasgai** bat egon beharko litzatekeela.

“Nik, aurreko urteetan dramatizazioari buruzko ikasgai bat jarriko nuke, ez soilik azkeneko urtean hautazkoa izatea” (E2, neska).

Azkeneko ideia hau, alderdi positibo batekin lotu daitekeela azpimarra daiteke: minor honetan lantzen denaren garrantzia. Ahots horrek dioenez, ez litzateke hautazkoa izan behar, baizik eta graduako ikasgaiaren parte. Hori esperientzia positiboa izan denaren emaitza da, denek ikasi beharko luketen ikasgai bat izan beharko litzatekeela diotelako. Hala, minorrari behar duen garrantzia emango litzaioke eta kontzientzia gehiago egongo litzateke.

5.4. Minorraren ekarpenak irakaslegaien prestakuntzari

Minorrak irakaslegaien prestakuntzari ekarpen pedagogikoak egin dizkiola bistaratu da, lehenengo zein bigarren eztabaidan argi aipatu baitira: dramatizazioa ekarpen pedagogiko bezala hartzen dute, egiten ikastearen aberastasuna, euren hazkuntza sozioafektiboa bermatzea eta etorkizunerako irakasle gisa egin dizkien ekarpenak azpimarratuz.

5.4.1. Dramatizazioa ekarpen pedagogiko bezala

Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrean dramatizazioaren garrantzia eta nola dramatizatu ikasten da, hots, ikasitako guztiak askotarako balio du, esaterako, baliabide eta material ezberdinak ezagutzeko, mundu ikuskera ezberdinak izateko, eta batez ere, dramatizazioa baliabide pedagogiko bezala erabiltzeko. Hori guztia, praktikaren bitartez zeharkako eran ikasten dela aipatzen da, dramatizazio proiektuak, konturatu gabe ikastea ahalbidetu baitu. Irakaslegaiak, dramatizazioaren bitartez asko ikasi dutela konturatu direnez, hurrekin dramatizazioa tresna bezala erabiltzeko baliagarria dela pentsatzen dute.

“Nire ustez politena da konturatu gabe hainbat gauza lantzen ditugula, guztia ez esateagatik, gu ez gara konturatzen eta berez lantzen dira. Nik uste dut hurrek asko ikasten dutela bakarrik dramatizazioarekin” (E1, neska).

“Dramatizazioa ere tresna bezala erabili” (E1, neska).

Finean, garrantzitsuena ez da teoria nahitaez buruz jakitea, baizik eta, eskuratu beharreko jakintza era atsegingarri eta eraginkor batean lortzea. Ikasle guztiak aspektu honekin ados daude, haien ustetan hurrek zein helduek, era horretan jakintzak hobeto asimilatzen ditugu. Dramatizazioa, ikaskuntza esanguratsu bat izaten asko laguntzen du, oso esperimentalta baita, hau da, esperientziaren bitartez ikasten da. Lehenengo eztabaidan, behin baino gehiagotan, soilik antzerkiak ikusten asko ikas daitekeela aipatzen da, testu batekin baino gehiago.

“Nik ere pentsatzen dut antzerki bat ikusten denok gehiago ikasten dugula testu bat aurrean izanda eta irakurtzen jarrit baino” (E1, T2, neska).

“Antzerkiak ikustea, hortik azkenean ideiak hartzen dituzu zuk ere etorkizun batean lan egiteko” (E1, neska).



3. Irudia: Ikasleak KunArten ikusitako antzezlanarekiko galderak egiten, Arte eta Haurtzaro txikia jardunaldien barruan.

Ikasle hauek minor honen aurretik ez zuten espero antzerki soil batetik hainbeste ikasi ahal zitekeenik baina “Arte eta Haurtzaro Txikia” jardunaldietan⁴ zein prozesu orokorrean zehar dramatizazioak irakaskuntza- ikaskuntza prozesuetan eskain dezakeen aukeretz konturatzeko aukera eman du. Beste ikasle batek gauzak gogoz eginda hobeto

⁴ [“Arte eta Haurtzako Txikia” jardunaldiak](#)

ikasten dela gehitzen du eta bigarren eztabaidan, ideia bera errepikatzen da, hezkuntzan aplikatzeko gauza asko ikasi izan dituztela, baina horietatik ikasle batek artearen garrantzia azpimarratzen du.

“Gainera hori gustura ikusten duzu eta gustura hartzen duzu” (E1, T2, neska).

“Artearen garrantzia, estetika garrantzitsua dela, lekuak zaindu behar direla, [...] ez bakarrik gauzak hala nola ipini, ez betiko gauzak errepikatu, originaltasuna.” (E2, T2, neska)

Askotan, soilik begi bistan dauden gauzak izaten dira kontuan, baina norbera ez da konturatzen hain ikusgarri dauden gauzek badutela bere funtsa. Horien artean, artea daukagu, zeini askotan ez zaion behar duen garrantzia ematen. Laugarren urte honetan, artearen inguruan kontzienteki aritu izan dira, lehen ohartzen ez zirenez orain kontuan izaten (estereotipoak, originaltasuna, abstrakzioa...). Aspektu horiek, norbanakoa hezitzaile den legez, gelara eramaten saiatu behar da, hor gertatzen den guztia izango baita ume askoren erreferente.

Azkenik, aipatzea, minor honetan zehar behin eta berriro errepikatzen den ideia bat: gutxirekin asko egin daiteke. Horren inguruan, neska batek dio haiek hasiera batean ez zirela konturatzen zerbait didaktikoa eta polita egiteko ez zela istorio sakon bat egin behar.

“Hasieran ez ginen konturatzen ez genuela behar istorio handi bat zerbait didaktikoa eta estetikoa egiteko” (E2, neska).

Askotan, gero eta gutxiago hobe dela ikus daiteke, sinpletasunarekin osotasuna bilatu behar dela. Azkeneko emaitzak ikusi arte, zailtasunak egon dira ideia hori benetan sinesteko, beraz, prozesu osoak horretaz konturatzeko balio izan du. Askotan pentsatzen baitugu, gero eta gauza konplexuagoekin mezu hobea transmitituko dela, baina, gauza sinpleenetatik asko ikas daitekeela ikusi da.

5.4.2. Egiten ikastearen aberastasuna

Praktikaren garrantziarekin lotuta, egiten ikastearen beharraz ohartu dira, azpimarratuz, aurten izan dela egiten ikasi duten urte bakarra.

“Azken finean, egiten ikasten dute haurrek ezta?, ba gu aurten egiten ikasten ari gara. Eta pasa diren urte hauetan ez dugu egiten ikasi” (E1, neska).

“Ni berarekin ados nago, askotan esaten digute, teorian sartzan digute, umeak umeak direla, mugitu behar direla, ezin direla mahai batean eserita egon, baina nik ere ezin dut ordu bete baino gehiago horrela egon.” (E2, neska).

Esperientzietatik gehiago ikasten dela uste dute minorreko ikasleek, buruz ikasitakoa berehala ahazten delako eta, horren bitartez ez baita ikasketa esanguratsu bat egiten. Gainera, umeek mugitzea behar duten arrazoi beragatik, helduek ere gauza bera behar dute, askotan, eserita egonda arreza erraztasun gehiagorekin galtzen delako. Horrez gain, bigarren eztabaidan, marko teorikoari gehiegizko garrantzia eman zaiola aipatu da, antzerkiaren prozesuko esperimenezkoak garrantzia handiagoa duela esanik.

“Nik uste dut marko teorikoari garrantzia larregi ematen diotela, guretzako antzerkia egiterakoan garrantzia gehiago izan du esperimendazioak eta bazirudien marko teorikoak bakarrik zuela garrantzia. Eta gero konturatu gara badagoela beste prozesu bat” (E1, neska).

Berriro ere, prozesuaren eta horren praktikotasunaren (esperimendazioa) garrantzia nabarmentzen da, ikasleek era honetan askoz ere gusturago eta modu eraginkorrago batean ikasten baitute. Honetan dramatizazioa funtsezkoa da, alde praktikoak berezko garrantzia hartzen du, arestian aipatu den legez, honen bitarteko ikasketa esanguratsua egiten.

5.4.3. Umeen hizkuntza aniztatetik trebatzeko aukera

Lehenengo eztabaidan, umeen hizkuntzatan adierazten ikasteak irakaslegaien ikaskuntzan asko lagundu duela aipatu dute, haien azalean jartzeak, haurren bizipen eta ikuspuntuak kontuan hartzen eta haiekin komunikatzen lagundu duelako.

“Azkenean da umeen hizkuntza hitz egitea, guk ere jakitea nola jolasten duten, guk azalean hori bizitzeak, horrek laguntzen digu gero umekin komunikatzeko” (E1, neska).

“Gu jartzen gara umeen paper horretan askotan, orduan ikuspuntu horretatik bizi egiten dugu. Gu gara umeen rola hartzen duguna, bizi egiten dugu gero jakiteko eta guk ere momentu hori bizitzeko. Askotan beharrezkoa da, guk ere parte hartzea, guk ere egitea...” (E1, T2, neska).



4. Irudia: Gorputz Hizkuntza ikasgaiaren ikas-talde bat gorputzarekin esperimendatzen, animalia ezberdinen keinuak imitatuz.

Umeen paperean sartzen, zerk funtzionatu ahal duen eta zerk ez bizi ahal izan dute, gustatu izan zaiena kontuan izaten eta ez zaiena gustatu alde batera uzten, etorkizun hurbil batean praktikan jartzerakoan kontuan hartzeko, azalean bizitakoa askoz ere baliagarriagoa izan da minorreko ikasleentzat.

5.4.4. Euren hazkuntza sozioafektiboa bermatzea

Arestian aipatutako ikasitako guztiaz gain, minor honek irakaslegaien hazkuntza sozioafektiboan eragin handia izan du. Hala, ikasleek haien garapen pertsonalaren beharra ikusi dute, prozesu osoan zehar emozioak kudeatzen ikasiz eta bizikidetzari aukera bat emanez.

5.4.4.1. Garapen pertsonalaren beharraz ohartzea

Irakaslegaien iritzien artean, gehien nabari den aspektua, bakoitza bere buruarekin eta besteekin disfrutatzea izan da, batez ere **norberak bere buruaz barre egiten ikastea**, bigarren eztabaidako ikasle batek dioen bezala.

“Gure buruaz barre egitea, nik entseguetan oso ondo pasatu dut, [...] nik pertsonalki pentsatzen dut, ondo pasatzen gauzak ateratzen direla, presiorekin blokeatuta gelditzen ginelako” (E2, T2, neska).



5. Irudia: *Ikasleek haien aurpegi espresio ezberdinak frogatzen haien buruaz barre egiten.*

Momentuaz disfrutatzeke, garrantzitsuena norberak bere buruaz barre egiten ikastea da, gauza berrietara irekita egotea, blokeo egoerak ekiditeko. Askotan, gero eta exigentzia maila altuagoa izan, gero eta pentsamendu itxiagoa daukagu, eta horrek egiterako orduan asko mugatzen gaitu. Disfrutatzen, gauzak frogatzen eta esperimendatzen, gauzak ateratzen dira. Hala ere, minor honetan lotsak ere presentzia handia izan du eta horregatik, lehenengo eztabaidan zein bigarrean, gehien errepikatu den lorpena **lotsa desagertzearena** izan da, ahots honek dioen bezala, minor honetan lotsa kentzen ikasten da.

“Minor honetan lotsa kentzen ikasten duzu, gehiago dramatizatzen, mugitzen...” (E1, neska).

“Nik ikusi dut antzerkia oso baliagarria izan dela lotsa kontrolatzeko, eta horrek garrantzia handia dauka gela batera heltzen zarenean” (E2, mutila).



6. Irudia: Taldearen aurrean egindako ariketa baten bitartez, lotsa gutxinaka kentzen: bokal ezberdinekin hitz egiten.

Minor honetan egindako ariketa guztiek oinarritzat desinhibitzea dute, lotsatuta egonda ez baitugu gure hoberena ateratzen. Egindako jarduera askoren xedea, esajerazioan datza, eta lotsak, jarduteko orduan asko mugatzen gaitu. Lotsa kentzea garapen pertsonalaren parte izateaz gain, bigarren eztabaidan esan zen bezala, hau desagertzeak konfiantza giroa sortu du irakaslegaien artean.

“Gela bezala, lotsa kendu dugunez konfiantza gehiago sortu da gure artean, zerbait lortu da hor, amankomunean zerbait daukagulako” (E2, neska).

“Urteetan zehar konpetitibitate maila hori jaitsi dela ikusi dut ere. Hasierakoa eta oraingoa zuria eta beltza dela ikusi dut, guztiz kontrakoa” (E2, neska).

Lotsa kentzerakoan, konfiantza harremana sortu izanenez, talde grina hobetu egin dela esan daiteke. Prozesu horretan, esperientzia berak partekatzeak asko laguntzen du, denak egoera berdinean egoterakoan, enpatia eta elkar ulertze maila hobetzen baita. Egoera honek, lehen eztabaidan azpimarratzen den bezala, bakoitzaren gaitasunak ikusten eta baloratzen ikasi da, hots, norbanakoak **besteen lana baloratzera** eraman izan du.

“Nik besteen lana baloratzen ikasi dut [...] bakoitzaren gaitasunak ikusten eta baloratzen ere, gaitasunak nahastuz zerbait oso polita sor daitekeela” (E2, neska).

“Eta bere lana baloratzea. Adibidez, bat ez da eszenatokira atera eta ez du aurpegia eman, baina berari esker posible izan da hau guztia egitea.” (E2, T2, neska).

Urte honetan bizi izandako prozesu horren amaieran soilik ikus daitekeen lorpena da, ez baita konturatzen zeinen garrantzitsua den bakoitzaren rola. Azkenean, bakoitzaren eta beste kideen lana bere osotasunean ikusterakoan, norbera orduan konturatzen da aurrera eramandako eginkizuna taldeko eginkizuna dela, bakoitzaren funtzioa ezinbestekoa dela. Bigarren eztabaidako neska batek argi uzten du aurten besteei esker ikasi duela, beste batek, enpatia maila hobetu duela azpimarratuz.

“Aurten besteei esker ikasi dugu” (E2, neska).

“Berdina egiten sufritu dugulako. Enpatia maila hobetu dugu” (E2, neska).

Nahiz eta norberak bere lorpen eta garapen pertsonala izan, azkeneko urte honetako esperientzia taldean aritzearen ondorioz hain sendoa izan da, non ikasleek haien kideetatik askoz gehiago ikasi duten, esan bezala, "Adierazpena eta Komunikazioa dramatizazioaren bidez" minorrean,

ikasle bakoitzak bere ekarpena egin du eta sortu den aniztasunak aberastasuna ekar dezakeela bizitzeko aukera izan dute.

5.4.4.2. Emozioak kudeatzen ikasten

Bizipen ezberdin eta handiko prozesua den heinean, bidean aurkitutako egoera, oztopo eta bizipen ezberdinen ondorioz, minorreko ikasleek, **emozioen izaera duala** bizi izan dutela aipatzen dute, helburu bat buruan izanik, hori lortzeko momentu eta emozio anitzetatik igaroz. Ideia hau lehenengo eztabaidatik azaltzen da, momentuaren arabera, kontrako sentsazioak izan dituztela aipatzen, ikasle baten hitzetan onak edo txarrak izan direnak.

“Adibidez, gu honetan parte hartzen gabiz, gu antzezlan bat egiten gaude eta horrek emozio asko al dizkizu atera, onak edo txarrak, momentuaren arabera” (E1, T2, neska).

“Nik izan ditut kontrako sentsazioak. Hasieran esaten ziguten, egon lasai amaieran ikusiko duzue ze polita den, eta bai, polita irten da, baina nik ez dakit merezi izan digun...” (E2, neska).

Lehenengo ahotsean ikus daiteke, momentu horretan prozesuaren hasieran soilik baino ez zeudela eta horregatik ikasle hori ez zela gai izan emozio horiek konkretatzeko, ideia orokorra bakarrik aipatzen baitzuen. Bigarren ahotsean aldiz, kontrako sentsazioak ere aipatzen dira, baina kutsu negatibo bat ikus daiteke, prozesua hain gogorra egin zaio non emaitzarekin ez den konforme geratu.

Bide osoa egin ostean, nahiz eta gehienek, estresa, larritasuna, beldurrak, frustrazioa, blokeoa eta kezka egon direla aipatu, prozesuaren amaiera ikusteko gogotsu egon direla aipatu da, zerbait polita aterako zelakoan.

“Batuetan gauzak ez zirenean ateratzen agian ez genuen lorik egiten...” (E2, neska).

“Baina nik beste alde batetik gogoak izan ditut prozesu honen amaiera ikusteko. Kaos momentu horren barruan, pentsatu dut agian zerbait polita aterako dela hemendik” (E2, neska).

Ahots hauetan, aipatutako emozioen izaera dualaz ohartzen direla ikus daiteke, nahiz eta kezkak loezina eragin, gogotsu parte hartu izan dute prozesuan, emaitza polita lortu nahian. Azken finean, kezka horiek amaierako emaitza ondo irtetea nahi izatearekin zerikusia dute, amaierako produktua nahi bezala ateratzeak esfortzu handia suposatzen duelako. Horregatik, ahots horrek esaten duenaren arabera, momentu horietan ez da amore eman behar, lan handiaren eraginez emaitzak merezi izaten baitu.

Emozioen izaera dual honetan eragina izan duen beste aspektu bat, ikasleak haien **konfort gunetik atera** behar izan direla izan da, libre jarduten utzi baitiete eta ez dira egon askatasunez jardutera ohituta. Hortaz, prozesuan zehar askatasunez eraikitzea zaila gertatu arren, oso aberasgarria izan dela aipatu dute.

“Nik uste dut minor honetan ere askatasunarekin gabiltzala eta libre jarduten uzten digute. Oinarri bat ematen digute baina gero gu libre gara, guk aukeratzen dugu zer egingo dugun zelan moldatu..., eta hori azkenean oso aberasgarria da” (E1, T2, neska).

“Beti ematen dizkigute gauzak eginak eta aurten guk bilatu behar izan ditugu, eta bai, zaila da, baina gure lana da. Eta orain eraikitzen gaude, ez gaude testu batetik ideiak ateratzen, guk nahi duguna eraikitzen gaude, ez gaituzte mugatzen” (E1, neska).

Azkeneko urte honetan, ikasleak konturatu dira orain arte ez dietela askatasunez jarduten utzi eta ohitura hori dela medio, egoera horren aurrean ez dute jakin zelan jokatu. Hala ere, modu honetan lan egiteak askotarako balio izan zaiela aipatu dute, euren kabuz egiten ikasi dutelako eta erabakiak haien esku egon direlako, inoren menpekotasunik izan gabe, orain arte graduan ohituta egon diren ez bezala, norbaiten gidaritzapean lan egin ohi izan baitute.

Ikaslearen arabera, **egoera horren aurrean bizipen ezberdinak** izan dira, bakoitzak konfort gunetik ateratzean modu bateko edo besteko erreakzioak dituelako. Neska batek, egoera horrek eragiten duen estresa aipatzen du, ohitura falta dela eta, ez baitakite espazio zabal batean gidapenik gabe mugitzen.

“Nik uste dut orain arte dena mugatuta eman digute eta mugitzen jakin izan dugu, baina orain, espazio zabal bat eman digute, eta ez dakigunez espazio horretan mugitzen, estresatzen gara” (E1, neska).

Ikasle honek, egoera horren aurrean egoteak estresa sortu diola dio, estres hori kudeatu ahal ez izateagatik, blokeo sentrazioa eragin baitio. Estres hori, prozesuan inoren gidaripean aurrera egiteko gai ez garela sentitzearen ondorio da, norbere buruarenganako konfiantza falta alegia. Beraz, egonezin sentrazio hori huts egitearen beldurratik sor daiteke, denbora aurrera joan ahala eta gauzak irteten diren heinean, desagertu daiteke, bigarren eztabaidan ebidentzia den bezala.

“Nik orain beste ikuspegi bat daukat, hasieran ez nuen ezer argi ikusten. Niretzako minor egokia ez zela pentsatzen nuen. Hau ez da nire lekua, ez dakit nondik hasi behar naizen, zelan bukatuko dudana... Eta orain dena argi ikusten dut, prozesuan ere gauzak argiago ikusten dira” (E2, T2, neska).

Argi ikus daiteke gehienbat hasierako sentrazioa dela, nahiz eta hasieran ez ikusi ezer argi, gerora, sentrazio hori gutxiagotzen doala, amaieran denak zentzua hartzen duela. Hasierako eztabaidan, bigarrenarekin kontrastean jarriz, ikasleek ez zela lantzen zenaren eta praktikaren arteko loturarik ikusten aipatzen dute, amaierakoan, aldiz, loturak argi eta garbi ikusten dituzte.

“Momentu honetan gauza askorekin buruan eta loturarik ikusi gabe” (E1, T2, neska).

“Nik hasieran ez nituen gauzen artean loturak ikusten eta azkenean, bukatu ondoren, zentzua dauka, gauzak arrazoi bategatik egin ditugu. Baina orain konturatu naiz” (E2, T2, neska).

Azken finean, hasieran sortutako blokeo egoera horrek, nahasiago egotea eragin du, baina, aurrera egiteko beharra dagoenez, esperientziak berak egoera horretatik irtetera eraman gaitu, emozio horiek kudeatzen ikasiz. Bigarren eztabaidako ahots batek dioena ideia honen isla da, sorkuntza prozesuaren amaieran konturatu delako dena alde zurretik ez dela lotuta izan behar, askatasunez jokatzeko garrantzitsua da ere bai.

“Guk alde zurretik dena lotuta ikusi behar genuen eta alderantzizko bidea ere garrantzitsua da” (E2, T2, neska).

Orokorrean, buruarekin jokatzeko ohitura dago eta aurtengo ikasleek ez dute soilik buruarekin ikasi, baizik eta gorputzaren eta inprobisazioaren bitartez. Horregatik, ahots honetan ikus daitekeen bezala, minor honetako ikasleak alderantzizko bidea hartzearen beharraz ohartu dira, hau da, alde z

aurretik buruarekin pentsatu beharrean, esperimentatuz bide berriak deskubritzen ikas daitekeela. Horrek sentsazio kontrajarriak sortu izan arren, prozesuari behar duen garrantzia eman dio, bizitakoa benetan baliagarria bilakatuz.

Konfort gunetik ateratzeaz gain, kezka eta estres askoren oinarria lan kopuruaren ondorioz izan da, gehienentzako zaila izan baita **lana denbora mugatuan kudeatzea**. Nahiz eta estresa pasatu, asko esajeratzen dutela aipatzen da, egin beharreko lanak hezitzaile izateko formakuntza on baterako funtsezkoak direla esanez.

“Nik uste dut asko kexatzen garela, gradu batean gaudela eta etorkizun batean hezitzaileak izango garela. Eta lan egin behar dugu, ikasi behar dugu eta denbora eskaini behar diogu. Ni ere asko estresatzen naiz baina hezitzaile onak izateko beharrezkoa dela uste dut” (E1, neska).
“Nire ustez gu oso erraz estresatzen gara, hasieratik lehenengo mailatik ez dugulako eraman horrelako metodologiarik” (E1, neska).

Pare bat pertsona gehiago ideia honekin ados egon dira, haiek, aurretik aipatutako ohitura faltarekin lotuz. Finean, lan asko den sentsazioa izan dute, entregak egiteko denbora muga bat izateak eragin du egonezina. Denbora, hasierako eztabaidan zein azkenengoan, hizpide izan da, entregatzen duten lanak guztiz eraikita ez dauden sentsazioa dutela azpimarratuz.

“Denbora murriztua denez, gure sentsazioa entregatzen duguna erdi egina edo txarto dagoela da, entregatzen duguna ez dagoela eraikita” (E1, neska).

Horren ondorioz, ez dira haien lanekin gustura geratu eta ikusten dute ezin dutela nahi bezalako lan bat gauzatu, denbora, bigarren eztabaidan aipatzen zen moduan ere blokeo, estres eta eztabaida askoren oinarria izan baita.

“Nik uste dut eztabaida asko, blokeo asko eta estres hori, sortu dela denbora faltagatik” (E2, neska).

Denborak, modu batera edo bestera, beti mugatzen du, bai graduan, bai minor honetan eta bai etorkizun batean lan egingo duten eskolan. Batzuek, beste batzuek baino hobeto eraman dute aurrera egoera hau, baina, azken finean denek lortu dituzte emaitza indargarriak inolako arazo larririk izan gabe. Denbora falta horrek eragiten duenaren kontziente izan arren, pentsamendu positiboak ere ageri dira, esanez nahiz eta lanpetuta egon disfrutatu dutela:

“Ni adibidez ez naiz txarto sentitzen oso lanpetuta nagoelako, nik disfrutatzen dut eta niri antzerki batean egingo dudana pentsatzea asko gustatzen zait” (E1, neska).

Ikasle honek dioenaren arabera, ikasle honentzat garrantzi gehiago izan du disfrutatzeak eta egiteak, bizi izan dituzten sentsazioak baino, hauek ez baitute berarentzat inolako oztoporik suposatu. Prozesuan eta orokorrean, bakoitza ahalik eta hoberen egiten saiatu behar da, bizitza osoan zehar denbora askotan muga bat izango baita, eta horretaz disfrutatzen jakin behar da ere bai.

5.4.4.3. Bizikidetzari aukera bat ematea

Talde lanean zelan moldatu diren galdetu zaienean, **lan taldean izandako ika-mikak** nabarmendu dira, haien arteko eztabaidak erabakiak hartzerakoan exijentzia maila handia izatearen ondorioz sortzen direla aipatzen da.

“Gure taldean adibidez, ASKO eztabaidatzen genuen, bakoitza zorrotza da bere buruarekiko eta besteekiko, orduan bakoitzak bere buruari exijitzen dion berdina exijitzen dio besteari, eta besteek berdin” (E2, T2, neska).

“Nik uste dut ere asko egin dugula lan taldetan. Eta ez da berdina banaka egitea zu zeure buruarekin zaudela, edo taldetan, desadostasun handiak egoten direla” (E2, T2, neska).



7. Irudia: Ikasleak haien arteko gatazken inguruko esperientziak konpartitzen eta entzuten.

Sorkuntza prozesuan pisuzko erabakiak hartzen dira eta bakoitzarentzat, zorrotza den heinean, ikuspuntu ezberdinak dira garrantzizkoak. Bakoitzak berea soilik jarraitu nahi du eta ez duenez bestearen ideiak entzuten edo onartzen gatazkak sortzen dira. Taldekideen arteko eztabaidek, saio praktikoetan aurrera egiterakoan trabak izatea suposatu du, zaila gertatzen baita adostasun batera heltzea. Egoera honetan, bi ahots ezberdinek bi zailtasun erakusten dituzte.

“Klase praktikoetan izugarritzko eztabaidak izan ditugu, ezin genuen ezer frogatu, bakoitza bere ikuspuntuan zentratzen zen eta ez zuen bestearena ongi ikusten” (E2, T2, neska).

“Gure artean ere, batzuk esaten zuten lehenengo idatzi behar genuela egiteko, eta beste batzuk lehenengo egin behar genuela gero idazteko. Eta berriro eztabaida” (E2, T2, neska).

Bi kasu horietan, bistan da, ados jartzen ez direlako ez dutela aurrera egiten. Lehenengo kasuan, arestian aipatutakoa argi plasmatzen da, bakoitzak berea bakarrik ikusten duela eta ez du besterik onartzen. Bigarrenean, aldiz, egiten hasteko arazoak azaltzen dira, berriro ere, arrazoi beragatik: bakoitzak bere pentsatzeko era duelako. Hortaz, talde zailtasun gehienek iturria hori izan dela prezia daiteke. Lan talde bateko neska batek esan bezala, haiek euren artean konfiantza handia dutenez, **gatazkak kudeatzen** jakin dute, ez dute adostasun batera heltzeko zailtasun handirik izan, beste batek dioenez, berriz, haiek erabaki handietan ez baina txikietan bai.

“Gure taldean ondo, eztabaidatu dugu baina jarraian heldu gara adostasun batera. Konfiantza hori dagoelako eta guk dena aurpegira esaten genuelako” (E2, T2, neska).

“Gure kasuan guztiz alderantziz, erabaki handietan ados geunden eta txikietan eztabaidatzen genuen” (E2, T2, neska).

Talde bakoitzak dinamika bat du eta talde kide bakoitzaren izaerak eragin handia du horretan. Lehenengo ahotsak esandakoa azpimarratuz, argi geratzen da, haien arteko komunikazioa eta jarrera ona izan dela, pentsaera malguagoa adieraziz eta horrela gatazkak era egokian kudeatzen. Bigarren ahotsean, aldiz, ikus daiteke erabaki handiak hartzerako orduan ez dutela arazo handirik izan, baina txikietan aldiz, eztabaidatzen zuten. Hortaz, batzuk beste batzuk baino zailtasun gehiago izan dituzte gatazkak kudeatzerako orduan, baina gehienak desadostasun larrienei irtenbide bat emateko gai izan dira.

5.4.5. Etorkizunerako irakasle gisa egin dizkien ekarpenak

Minor honetan zehar bizi izandakoak etorkizunerako irakasle gisa ekarpen handiak egin ditu, irakaslegaiak haien irakasleengandik, ikaskideengandik eta euren esperientzia propiotik asko ikasi baitute. Partekatutako esperientzia honetan, irakasleekiko harremana, ikasleen arteko kidetasuna eta ikasitako baliabideak aipatzen dira.

Azkeneko urte honetan, **irakasleekiko harremana** asko indartu dela islatu da, hauek momentu oro laguntza, prestutasuna eta denbora eskaini dutela ikusi dutelako.

“Ez nuen espero irakasleekin sortu den feeling-a, haien laguntzeko gogoak eta prestutasuna, denbora gehiago behar izatekotan geratzen direla...” (E2, neska).



8. Irudia: Irakasleak ikasleei haien antzezlanen feedback-a ematen.

Kurtso hasieran, ikasle eta irakasleen artean liskar txikiak sortu zirenez, ez zen giro eroso batean hasi kurtsoa eta horregatik, izan da hain bihotz-altxagarria horrelako harremanarekin amaitzea. Orokorrean, graduatan irakasle-ikasle harremana nahiko hotza izaten da, ez dago ohiturarik ikasle eta irakasleen arteko harremana estua izateko, hori dela eta, aurten, oso aberasgarria gertatu da, irakaslegai batek gehitzen duen moduan, irakasleak prozesuaren parte izatea.

“Lehenengo urtea da non irakasleen partetik hori ikusten dugun. Gurekin egon dira, gure prozesuaren parte izan dira” (E2, neska).



9. Irudia: Irakaslea prozesuaren parte bezala, ikasleekin bat ariketan parte hartzen.

Esperientzia honetan denek hain gogotsu eta aktiboki parte hartu izanak, beste gauza batzuen artean, ikasle zein irakasleekin harremana sendotzea eragin du, hori gure garapen pertsonalerako oso onuragarria izanik. Bigarren eztabaidan, klaseko giroaz hitz egiten baita, beste urteekin konparatuz haien arteko **kidetasun gehiago** dagoela esanik. Horrek, haien arteko lehiakortasuna gutxitzea eragin du, euren buruekiko lehiakortasuna indartuz.

“Klaseko kidetasuna, gustura egon gara, beste urteekin konparatuz” (E2, mutila).

“Urteetan zehar lehiakortasun maila hori jaitsi dela ikusi dut ere. Hasierakoa eta oraingoa zuria eta beltza dela ikusi dut, guztiz kontrakoa.” (E2, neska).

Aurtengo talde lanetan, ikasleek kideari entzuten ikasi dutela ikusi da, bakoitzaren pentsaerak errespetatzen eta horrekin gutxika erabakiak hartzen joaten, emaitza polit bat lortuz. Kidea entzuteak eta errespetuz jokatzek, asko sendotzen du harreman bat eta orokorrean, beste urte batzuekin alderatuz, nabarmen handia izan dela aipatzen da. Horri, mutil batek bakoitzaren nahiz besteen prozesua ikustea polita dela gehitzen dio.

“Nire ustez prozesu hori ikustea oso polita da, ez bakarrik gure taldekoa baizik eta besteena ere bai: estanpazioak ikustea, aterkinekin zer egingo duten galdetzea. Ideiak hartu ahal dira” (E2, mutila).

Talde lanean aritzea oso onuragarria izan dela ikus daiteke, ikasleek ez baitute soilik haien lana baloratu, bai eta besteena baloratzen ikasi dutela. Gainera, eskuratutako balioaz kontziente izatea seinale ona da, aurreko urteetan gertatu ez dena aurten lortu baita, emaitza positiboak jasoz. Amaitzeko, irakasle direnerako **baliabide asko ikasi** dituztela azpimarratzen da, ikasleentzako gehienak berriak suertatuz.

“Gauza berri asko ikasi ditudala: argi beltza, itzal txinatarrak, itzalak... Niretzat gauza berri asko izan dira” (E2, T2, neska).



10. eta 11. Irudiak: Azken antzezpenetan bi taldek erabilitako itzal txinatarrak eta argi beltzak.

Ikasleei baliabide anitzak eskuratu dituztela sentitzeak segurtasuna eman die eta alderdi positibo bezala baloratu dute irakasle direnerako. Haientzako, irakaskuntzarako baliabide berri eta erakargarriak ikastea, hala nola, argi beltza eta itzal txinatarrak, berrikuntzarako aukera ezin hobea izan da. Ondorioz, dramatizazioaren bitartez Haur Hezkuntzako irakaslegaiak ikaskuntza esanguratsua egin dutela azpimarratu dezakegu, bizi izan duten prozesua ez dute erraz ahaztuko eta etorkizun hurbilean irakasle gisa aritzean oso presente izango dutela agerian geratu da.

6. ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honetan hasieran azpimarratu dugun bezala, gaur egun, dramatizazioaren garrantzia gero eta gehiago azpimarratzen bada ere, 70. hamarkadatik aurrera umeei zuzendutako antzerki profesionala nazioarte mailan oso azkar hazi baita, hezkuntzan, zoritxarrez, dramatizazioak ez du horrelako ez hedapenik, ezta presentziarik izan. Lehen Hezkuntzan, gehienbat dramatizazioarekin zerikusia duen guztia heziketa fisikoarekin lotzen da, eta ez zaio beste kirol batzuei ematen zaien garrantzia bera ematen. Haur Hezkuntzan, ordea, ez da inon azaltzen hura landu behar denik (Tresserras, 2017) eta, beraz, ez da horren lanketarik egiten. Honela, burututako eztabaida taldeetan Gasteizko Kirol eta Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzako ikasleek, argi utzi dute, Graduan zehar beraiek “praktika” deitzen dioten hori, alegia, bizipenetik eta ekintzatik ikasteko aukerarik ez dutela izan.

Dramatizazioa, hizkuntza guztiak bilduz, gizaki harremanetan eragile indartsu bat da, eta umeen 100 hizkuntzak (Malaguzzi, 2005) kontuan hartzen dituen legez, Curriculumaren, eta hortaz, hezkuntzaren parte izan beharko litzateke. Eztabaidetan, ideia hori hainbat bider izan da hizpide, dramatizazioaren gabeziarik egon ez dadin, hezkuntzak egoera horrekiko erantzukizuna izan behar duela esanez. Dramatizazioa, era honetan, pertsonen, eta batez ere, irakaslegaien prestakuntzan presente egonik (Navarro, 2003).

Gure gizartean, , lehiakortasunak, azalakeriak eta indibidualismoak indarra hartzen dute, laguntasuna, bizikidetzeta eta enpatia alde batera uzten. Hori dela eta, balio hauen kontrako, eta

errespetua, bizikidetzeta eta komunikazioa balio gisa dituen hezkuntzaren alde egitearen beharra dago. Eztabaida taldeetan behin eta berriro azpimarratzen da dramatizazioaren bitartez kidetasun eta konfiantza giroa sortu dela, ikaskideen arteko errespetua eta entzuketa hobetuz, bakoitzaren pentsaerak errespetatzen eta ondokoaren lana baloratzen ikasi baitute. Beraz, dramatizazioa eraikuntza soziala eta garapen integrala sustatzeko, elkarlanean aritzeko jarrera eta gaitasuna ezinbestekoa dela esan beharra dago eta gure gizartearen aipatutako balioen aurka egiteko eta aipatutako gaitasunak garatzeko baliabide aproposa da.

Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrak, dramatizazioari berezko garrantzia emanez eta horren prestakuntza eskainiz, gizartearen hobetze prozesuan ekarpen handia egin du. Nahiz eta, desinformazioaren eraginez, ikasleen aurremotibazioa hasieran batere altua ez izan, gerora dramatizatzearen beharraz konturatu dira, eskaintzen dituen aukera pedagogikoen bitartez, irakaslegaiak, arrakasta handiarekin, irakaskuntza aktibo eta parte-hartzaile bat sustatzeko aukera izan baitute (Nuñez eta Navarro, 2007).

Minor honetan, prestakuntza osatu bat eskaintzea posible egiten duten hainbat alderdi aipatu dituzte Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako ikasleek, hauen artean, barnean aurkitzen diren hizkuntzak. Umeen hizkuntza anitzak, ikasgaien bidez lantzen dira eta dramatizazioaren bitartez trebatzen ikasteko funtsezkoak dira, hauei esker, ikasketa esanguratsua bermatzen delarik. Ikasleek, ikasketa esanguratsu hau egiten ikastearekin lotzen dute, ikusi izan den bezala, prozesuan zehar izandako esperientzia eta bizipenen bitartez ikasketa esanguratsua gertatzen dela aipatzen dute. Esparru intelektualetik soilik, ikaskuntza zaila gertatzen zaigu, umeei bezala helduek ere, balioak teorikoki ikasi baino, buruarekin, bihotzarekin eta gorputzarekin sentitu eta bizi behar dituzte (Nuñez eta Navarro, 2007). Dударik gabe, ikaskuntza guztia dramatizazioaren edo artearen bitartez aurrera eramango balitz, ez litzateke umeei ikasgai bezala irakasteko beharrik egongo (Tresserras, 2017).

Bidean bizi izandakoak, irakaslegaien hazkuntza sozioafektiboa ahalbidetzen duela egiaztatu da, euren garapen pertsonalaren beharraz ohartaraziz. Finean, dramatizazioa pertsonalaren eragile handia da, eta minorreko ikasleek alderdi hori biziki bizi izan dute, norberak bere buruaz barre egiten, lotsa kenduz eta besteen lana baloratzen ikasiz. Egoera ezberdinetan emozio ezberdinak bizitzen eta identifikatzen laguntzen duela ondoriozta daiteke, eta baita hauek kudeatzen ikasten ere. Hala, garapen pertsonala bere osotasunean bermatuz. Alderdi intrapertsonalaz gain, dramatizazioak gaitasun interpersonalean ere laguntzen duela ikusi da, talde lanak ez baitu soilik norbanakoa kontuan hartzen, baizik eta taldeko kide guztiak. Lan taldean aritzeak, bizikidetzaren hobekuntza ekarri du irakaslegaien iritsiz, enpatiari eta partekatzeari lekua eginez.

Irakaslegaiak, garapen integrala oso garrantzitsua gertatu zaie, hezkuntza-komunitatea eskolaren premia izatea beharrezkoa ikusten baita (Beresaluce, 2008), eta prozesuan sortzen den kidetasuna ere, oso balio aberasgarria eta aipagarria da irakasle prestakuntzarako, alegia, haien azalean bizi izan ondoren, balio hau sustatzeko prozesu aproposa bizi izan dute. Ikaskideen arteko harremana sendotzeaz gain, ikasleen eta irakasleen artekoa hobetu egin dela ikusi da, biak prozesuaren parte izan baitira, kidetasun handia erakusten.

Ildo horretatik, *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorrean, irakaslegaiak bide zuzena hartzera bideratzen dutela uste dut, dramatizazioaren inguruko oinarri sendoak eraikitzen. Minor honetako ikasleei, askatasunez jokatzeko aukera eskuratu zaie, prozesuan hausnarketa sustatuz eta inplikazio aktiboa bermatuz. Era honetan, bakoitzak bere bide propioa egin du baina aldi berean besteekin esperientziak partekatuz eta bizikidetza horretatik ikasiz. Ikasleak umearen paperean jartzeko aukera izan dute, bizipenak euren ikuspegitik ulertzeko eta haiekiko gertutasuna bilatzeko asmoz. Dramatizazioaren bitartez, egiten ikasten duzu eta ikasteko era hori edozeinek izan dezakeen ikaskuntza modurik aberasgarriena da.

Azkenik, aipatzea, minor hau irakaslearen prestakuntzan bere lehenengo pausuak ematen ari den arren, argi ikusi dela lehentasuna, modu eraginkor eta aberasgarri batean, gizabidezko eta balioetan oinarritutako hezkuntza bat bermatzea dela. Hezkuntzan dagoen gabezia garrantzitsu bati irtenbidea ematen saiatzen ari dira eta ikerlan honen bitartez, ikusi izan da, esfortzuak bere fruituak ematen dituela eta dramatizazioa behar bezalako garrantzia hartzen ari dela, hezkuntzan horren beharraren kontzientzia sortuz. Etorkizun batean, irakasle gisa, *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasleok, izandako bizipenetatik abiatu eta dramatizazioak eta, zehazki, minor honek eskainitako balioak sustatzeko gai izango garela nago, ikasitako baliabide guztiak praktikan jarri. Irakasleen eginkizunaren garrantzia berreskuratzea beharrezkoa baita, irakaskuntzaren kalitatea, nagusiki hezkuntza gidatzen duten pertsonen garapen pertsonal, zientifiko eta pedagogikoaren menpe dagoelako (Beresaluce, 2008).

Arte dramatikoan oinarritutako estrategia didaktikoak, oinarrizko gaitasun komunikatibo eta linguistikoak, gaitasun kulturalak eta artistikoak, gizarte gaitasunak eta banakako eta ekimen pertsonaleko gaitasunak garatzeko tresna aproposak dira (Motos, 2009). Dramatizazioa “tresna globalizatzailea da” alderdi afektibo, kognitibo, korporatibo eta kulturalarekin lankidetzan aritzen baita, hizkuntza guztiak bilduz (Navarro, 2006).

7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Amaitzeko, nire uste apalean, etorkizunari begira hezkuntzan gai honekiko egin daitezkeen zenbait hobekuntza proposamen azaleratuko ditut. Nik, Haur Hezkuntza Gradu eta *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez* minorreko ikasle gisa, esan beharra daukat, aurrean eskuratu dudala dramatizazioak hezkuntzan duen garrantziaren kontzientzia, orain arte ez baineukan honen inguruko informaziorik.

Dramatizazioan garrantziaz ohartzeak, praktika garaian egondako eskolan dramatizazioaren egoera behatzeko interesa piztu zidan, minorrean ikasitakoa eskolako errealitatearekin alderatzeko aukera izanik. Egonaldi osoan, gorputz-adierazpenarekin zerikusia duten pare bat jolas soilik egin zituztela ikusita, ikasitakoaren ekarpen bat egitea erabaki nuen. Hala, ikasitako teknika batzuen bitartez (itzal txinatarrak, argi kutxa, etab.) dramatizazioa eskolara eraman nuen. Proposamenaren

helburu nagusiak, klasearen beharrak kontuan hartuta, batez ere, elkarlana, errespetua, komunikazioa eta kooperazioa lantzea ziren.

Dramatizazioa, zenbait balio sustatzeko baliabide erakargarri eta berritzaile aproposa iruditzen zait, eskoletan oraindik ezezaguna dena. Dramatizazioa baliabide pedagogiko gisa erabiliz, hurrei esperientzien bidezko ikaskuntza esanguratsua bermatzen die eta hauei esperientzia ahaztezinak eskaini behar zaizkiela uste dut, bizipenetatik sorrarazten dizkiguten emozioak aintzat hartuz. Umeei dramatizatzen trebatzeko aukera gehiago eskainiko balitzaie, zeharkako eran hainbat balio esanguratsu barneratuko lituzkete, garapen pertsonal, sozial eta kognitiboa konturatu gabe garatuz. Jarduera ezberdinak proposatuz eta bide berriak probatuz, ikuspegi sortzaileak plazaratuko ziren, sormenari bide berri bat zabaltzen.

Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrari dagokionez, esan beharra daukat dramatizazioak hezkuntzan duen garrantzia kontuan hartuta, eztabaideetan aipatu den bezala, azkeneko urtean soilik landu beharrean Haur Hezkuntza Graduaren parte izan beharko litzatekeela. Era honetan, dramatizazioaren beharraren kontzientzia hasiera batetik sortuko litzateke, ikasle guztiak prestakuntza hori jasoz eta etorkizunean dramatizatzeke eta dramatizatzen irakasteko gai izateko.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK


- 12/2009 DEKRETUA, urtarrileko 20koa. Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO), 21, 1-41 orr., Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 30a. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf>
- Alvarez-Uria, A. eta Tresserras, A. (2014). Hezkuntza artistikoa jolas gisa. In Vizcarra, M.T. (Koord.) Kubik: antzezlan bata baino gehiago... Haur Hezuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat (79-96 orr.). Bilbo: EHU.
- Aranguren Gallués I., Galbete Martinicorena V., Goyache Romeo, M.J. eta Pascual Bonis M.T. (1996). *Dramatización. Materias optativas. Segundo Ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria*. Nafarroako Gobernuak. Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazte Saila.
- Beresaluce, R. (2008). *La calidad como reto en las escuelas de educación infantil al inicio del siglo XXI. Las escuelas de Reggio Emilia, de Loris Malaguzzi, como modelo a seguir en la práctica educativa*. (Tesis Doctoral). Universidad de Alicante.
- Bisquerra, R., Soldevila, A., Ribes, R. Filella, G., y Agulló, M. J. (2005). Una propuesta de currículum emocional en educación infantil (3-6 años). *Cultura y Educación: Revista de teoría, investigación y práctica*, 17(1), 5-18.
- Borda, M. I. (2015). Dramatización infantil: una propuesta de reconstrucción del conocimiento experiencial. *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 30(2). Webgune honetatik berreskuratua (2019-04-20): <http://www.revista.uclm.es/index.php/ensayos>
- Cabezas, A. (2009). La educación auditiva en educación infantil. Innovación y experiencias educativas. 16, 1-2. Webgune honetatik berreskuratua (2019-02-15): http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_16/ALBA_CABEZAS
- Cervera, J. (1981). *Cómo practicar la dramatización con niños de 4 a 14 años*. Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes: Editorial del Cardo. Webgune honetatik berreskuratua (2019-04-25): <http://biblioteca.org.ar/libros/132401.pdf>
- Colmenares, A. M. (2012). Investigación-acción participativa: una metodología integradora del conocimiento y la acción. *Voces y Silencios: Revista Latinoamericana de Educación*, 3 (1), 102-115.
- Claro, M. (2010). *Impacto de las TIC en los aprendizajes de los estudiantes: estado del arte*. Comisión Económica para América Latina y el Caribe. Webgune honetatik berreskuratua (2019/02/15): <https://repositorio.cepal.org/bitstream/handle/11362/3781/lcw339.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Elliott, J. (1993). *El cambio educativo desde la investigación acción*. Madrid: Morata.
- Fernández, A. I. (2009). Didáctica de la música. La expresión musical en la educación infantil. La música en el aula. Innovación y experiencias educativas, 15. Webgune honetatik berreskuratua (2016/05/11): http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_15/ANA%20ISABEL_FERNANDEZ_1.pdf
- González, H. (2015). *La dramatización en Educación Infantil* (Grado Amaierako Lana). Valladolid: Valladolideko Unibertsitatea.
- Graells, P. M. (2000). Las TIC y sus aportaciones a la sociedad. *Departamento de pedagogía aplicada, facultad*. Facultad de Educación. UAB.
- Heziberri 2020 curriculumak. 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa.

- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- L'Ecuyer, C. (2015). La estimulación temprana fundamentada en el método Doman en la Educación Infantil en España: bases teóricas, legado y futuro. *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 30(2). Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.revista.uclm.es/index.php/ensayos>
- Laferrière, G. (2001). *Prácticas creativas para una enseñanza dinámica. La dramatización como herramienta didáctica y pedagógica*. Ciudad Real: Ñaque.
- López de Arana, E (2009). Informazio eta komunikazio teknologia berriak hezkuntzan (I). *Jakingarria*, (65), 1-29.
- Motos, T. eta Navarro, A. (2003). El papel de la dramaticación en el currículum. *Revista Articles de la Ed. Graó*, (27), 3-21. Webgune honetatik berreskuratua (2019-04-5): <https://www.postgradoteatroeducacion.com/wp-content/uploads/2013/07/El-papel-de-la-dramatizaci%C3%B3n-en-el-currículum.-Por-Tom%C3%A1s-Motos-y-Antoni-Navarro.-Revista-Articles-de-la-Ed.-Gra%C3%B3.pdf>
- Motos, T. (2009). El teatro en la Educación Secundaria: fundamentos y retos. *Revista Creatividad y Sociedad*, 15, 1-39. Webgune honetatik berreskuratua (2019-06-06): <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5296346>
- Malaguzzi, L. (2005). *Los cien lenguajes de la infancia*. Barcelona: Rosa Sensat.
- Martinez-Agut, M.P. eta Ramos, C. (2015). Escuelas Reggio Emilia y los 100 lenguajes del niño: experiencia en la formación de educadores infantiles. *Actas del XVII, Coloquio de Historia de la Educación: Arte, literatura y educación*, 2(3), 139-151.
- Navarro, M. R. (2003). La formación inicial del profesorado en las universidades públicas españolas para el uso de la dramatización en el aula. *Enseñanza*, 21, 181-198. Webgune honetatik berreskuratua (2019-05-28): https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/17083/file_1.pdf?sequence=1
- Navarro, M.R. (2006). Drama, creatividad y aprendizaje vivencial: algunas aportaciones del drama a la educación emocional. *Cuestiones Pedagógicas*, 18, 161-172.
- Núñez, L. eta Navarro, M. R. (2007). Dramatización y Educación: Aspectos Teóricos. *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 19, 225-252. Webgune honetatik berreskuratua: <http://revistas.usal.es/index.php/1130-3743/article/view/3262/3288>
- Pavey, D. (1982) *Juegos de expresión plástica*. Bartzelona: CEAC.
- Perera, M. V. A., eta Suárez, H. C. (2009). Importancia de trabajar las TIC en educación infantil a través de métodos como la webquest. *Pixel-Bit. Revista de Medios y Educación*, (34), 81-94.
- Rodríguez, M. E. J. (2012). Desarrollo de la creatividad en educación infantil: Prespectiva constructivista. *Perspectivas en primera infancia*, 1(1).
- Solís, R. (2018). El teatro como estrategia didáctica en la enseñanza ELE: Aspectos teóricos. *Revista de la Asociación Europea de Profesores de Español. El español por el mundo*, 1, 235-247. Webgune honetatik berreskuratua: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/aepe/pdf/revista_01_01_2018/revista_01_01_2018_23.pdf

- Tapia, I. (2015-2016). *La dramatización como recurso educativo: un estudio para la mejora de los procesos elaborados de comprensión lectora (Master Amaierako Lana)*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroa. Webgune honetatik berreskuratua (2019-04-10): <https://academica-e.unavarra.es/handle/2454/21394>
- Tejerina, I. (1994). *Dramatización y teatro infantil. Dimensiones psicopedagógicas y expresivas*. Madril: Siglo XXI.
- Teruel, T. M. Psikopedagogía de la Dramatización. Webgune honetatik berreskuratua: http://www.postgradoteatroeducacion.com/wpcontent/uploads/2016/11/Psicopedagog%C3%ADa_Drama_MTA_2015_2016.pdf
- Tisseron, S. (2006). *Internet, videojuegos, televisión. Manual para padres preocupados*. Barcelona: Graó.
- Tresserras, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a través del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. Tesi Doktorala. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- UEUren, Z. M. (n/d). Zesar Martinez: “Euskal Herrian azken hamarkadetan aktibismo sozialak eta politikoak indar handia izan du, baina beti dago zer hobetu eta non sakondu”, 6.
- Vieites, M. F. (2012). *Después de la LOE. Presente y futuro de la educación teatral en España en los inicios del siglo XXI*. Webgune honetatik berreskuratua (2019-05-28): http://teatro.es/contenidos/donGalan/donGalanNum2/pagina.php?vol=2&doc=1_4
- Vizcarra, M. T. (2008). *Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan*. 2008 ikasturteko Haur Hezkuntza Graduoko apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Irakasle Eskola.

9. ERANSKINAK

9.1. Ikasgaiek dramatizazioari egiten dizkioten ekarpenak



9.2. Lehenengo eztabaidako galdera eragileak

- Orain arte HH graduan ikasitakoa kontuan hartuta, ze gabezi sumatzen dituzu jaso duzun prestakuntzan?
- Zergatik aukeratu duzu “Adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez” minorra?
 - Hasierako espektatibak hobera, txarrera edo berdin jarraitzen dute?
- Orain arte minorrean egindakoa kontuan hartuta zerekin geratu zara? Ze ekarpen egin dizkizu?
 - Zelan ikusten duzu zure burua une honetan? Aldaketa edo eboluziorik nabari duzue hasieratik hona?
- Zer zailtasun topatzen ari zara prozesuan?
 - Ze sentrazio bizi dituzu? Berriak izan dira? Zelan sentitzen zara sentrazio horien artean?
- Etorkizunean zer uste duzu izango dela erabilgarria irakasle zarenerako?
- Zer botatzen duzu faltan?

9.3. Bigarren eztabaidako galdera eragileak

- Orain arte minorrean egindakoa kontuan hartuta zerekin geratu zara? Ze ekarpen egin dizkizu?
 - Zelan ikusten duzu zure burua une honetan? Aldaketa edo eboluziorik nabari duzue hasieratik hona?
- Zer zailtasun topatu dituzu prozesuan? Honen ondorioz, zer uste duzue ikasi dituzuela?
- Hasierako espektatibak hobera, txarrera edo berdin jarraitzen dute?
 - Krisiak eta bizi izandako sententzio edo emozioak zelan kudeatu dituzu? Talde lanean ondo moldatu zara?
- Zerk eragin dizue kuriositatea piztuta mantentzea? Jolasak edota espazioak horretan eragina izan ditzakeela uste duzue?
- Jardunaldi pedagogikoen zer ekarpen egin zizkizueten?
- Etorkezunean zer uste duzu izango dela erabilgarria irakasle zarenerako? Ze errekurtsio/erraminta uste duzue dituzuela?
- K6 antolaketa eta lanaren inguruan zer gustatu, zer hobetu?
- Zer botatzen duzu faltan?
- Ze 5 ingrediente eduki behar du HHri zuzendutako proposamen artistiko-pedagogiko batek?